

ZUZENBIDE FAKULTATEA- FACULTAD DE DERECHO

IKD I3 Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022

«Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikuspegitik (IKDi3 21-30)»

FEMINIZIDIOA ETA GIZA ESKUBIDEEN SISTEMA INTERAMERIKARRA MEXIKON: CAMPO ALGODONERO KASUA

BIZKAIA.

IKASTURTEA: 2021-2022

Gradu Amaierako Lana

EGILEA: Irene Martínez Fernández

ZUZENDARIA: iker zirion landaluze

Bilbon, 2022ko maiatzaren 17a

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Testuingurua eta kontzeptua: Ciudad Juárez eta feminizidioa	6
2.1 Ciudad Juárezeko emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegi orokorra....	6
2.2 Feminizidioaren kontzeptualizazioa.....	9
3. Campo Algodonero Kasuko nazioarteko tresna juridikoak	11
3.1 Nazioarteko legeria: emakumeen giza eskubideak babesten dituzten Konbentzioak	11
3.2 Sistema Interamerikarra: Giza Eskubideen Batzordea eta Gortea.....	17
4. González y otras vs México (Campo Algodonero)	20
4.1 Egitateak eta prozedura judiziala	20
4.2 Epaia	22
4.2.1 Aplikatutako legeria.....	23
4.2.2 Estatuaren erantzukizuna	24
4.2.3 Neurriak eta kondena	30
5. Epaiaren ondorioak	33
5.1 Barne Legedian	34
5.2 Jurisprudentzian	38
6. Amaierako hausnarketak	39
Bibliografia.....	43

1. Sarrera

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeek emakume izate hutsagatik sufritzen duten indarkeria mota guztiei egin nahi die erreferentzia¹. Indarkeria honek modurik larrienean giza eskubideak eta emakumeen oinarrizko askatasunak urratzen ditu. Genero indarkeria gure gizartean egunero gertatzen den errealitatea dugu eta, beraz, gizartean dugun arazo latzenetako bat bilakatu da. Genero indarkeria era askotan azalarazten da: kalte fisikoa, psikologikoa, sexuala, mehatxuak, hertsapena, askatasun-gabetza, eta abar. Egintzarik larriena emakumeen hilketa dugu. Genero-arrazoiengatik emakumeen hilketak definitzeko “feminizidio” kontzeptua erabili ohi dugu. Kontzeptu honek Hego Amerikako herrialdeetan du jatorria eta bertatik hedatu egin da.

Michelle Bachelet-ek, 2013an, esan zuenez, genero-arrazoiengatik emakumeen hilketak eskualde orotan, herrialde guztietan eta edozein kulturatan gertatzen dira. Izan ere, zenbakiak ikaragarriak dira: 2004tik eta 2009ra, urtero, 66.000 feminizidio izan dira, hau da, urteko giza hilketen ia bostena; Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan, emakumeen erailketak bikoiztu egin dira 2010etik 2012ra zigorgabetasunaren ondorioz, besteak beste².

Emakumeen aurkako indarkeria mundu mailako egiturazko arazoa izanik, Nazioarteko Zuzenbide Publikoak eginkizun garrantzitsua du arlo honetan. Izan ere, Estatu guztiei eragin beharreko konponbide eta neurriak sustatu eta garatu beharko lituzke. Estatu soil batek ezin dio bakarrik aurre egin mundu mailako arazo honi. Beraz, Nazioarteko Zuzenbideak Estatu orori eragiten dion arauak zein ebazpenak hartu behar ditu.

Badirudi Estatuak honetaz jabetu direla azken berrogeita hamar urteotan. Garai honetan, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko zenbait adierazpen eta itun garrantzitsu onetsi dituzte: besteak beste, Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW). Nazioarteko tresna hauen bidez, Estatuak

¹ Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, Recomendación General nº 19, La violencia contra la mujer, 11º período de sesiones, 1992. Eskuragarri hemen: <https://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/recommendations/recomm-sp.htm#recom18>.

² Bachelet, Michelle (2013). ONU Mujeres organismoaren Zuzendaria, hitzaldia, genero-arrazoiengatik emakumeen hilketei buruz, feminizidioak barne, 57a sesión de la Comisión sobre la Condición Jurídica y Social de la Mujer (CSW57), 2013ko martxoaren 8a. Eskuragarri hemen: <https://www.unwomen.org/es/news/stories/2013/3/bolstering-efforts-to-end-impunity-for-femicide-and-gender-motivated-killings>.

emakumeen aurkako indarkeriaren arloan bete behar dituzten erantzukizunak zehaztu dituzte, hala nola emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko ardura. Horrela, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa herrialdeetan genero-politikak bultzatzen saiatu da eta Estatuak suspertu ditu arlo honetan neurriak har ditzaten. Gainera, Nazioarteko Zuzenbidea, kanpoko eragilea izanik, Estatu batek arlo honetan ematen dituen aurrerapausoak objektibotasunez aztertu eta epaitu ditzake. Beraz, emakumeen kontrako indarkeria eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren arteko harremana zein eragina aztertzea aberasgarria da legelariaren ikuspuntu akademikotik. Eta horixe da, hain zuzen, Gradu Amaierako Lan honen funtsa.

Izan ere, lan honen helburu nagusia honako hau dugu: nazioarteko tresnek eta bereiziki eskualdeko Gorte batek —Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra— barneko politiketan eta legedian duten eragina aztertzea, Mexikoren kasuan, hain zuzen. Eraginkorrek ote dira arlo honetako nazioarteko ebazpenak barne mailan aldaketak eragiteko? Epai eta nazioarteko presioa zenbaiteraino baldintzatzen dute barneko legedia? Hauexek dira Gradu Amaierako Lan honek erantzun nahi dituen itaunak.

Lan honen ekarpena baliagarria izan dadin ikerketa sendo eta zehatz batean oinarritu behar dugu. Hori dela eta, lanaren objektua denboran eta espazioan mugatu eta kokatu beharra dugu. Alde batetik, lurralde konkretu bat aukeratu dugu gure ikerketarako: Ciudad Juárez (Mexiko). Bestalde, denborari dagokionez, egingo dugun azterketa 1993an hasi eta gaurdaino luzatzen da. Leku eta denbora honi lotutako epai bat dugu ardatz lan honetan: *González y otras vs. México* epaia (*Campo Algodonero* Kasua izenekoa).

Esan beharrik ez dago zergatik aukeratu dugun Ciudad Juárez-eko kasua lan hau burutzeko. Jakina denez, Ciudad Juárez Mexikoko emakumeen aurkako indarkeriaren leku paradigmaticoa dugu³. Gainera, nazioarteko ikuspuntutik, Mexikoko Estatu Giza Eskubideen Sistema Interamerikarraren kide da, eta sistema honetako Estatu kideek nazioarteko legeria komuna sortu dute kontinenteko emakumeen eskubideak babesteko asmoz. Hala, Gizonaren Eskubide eta Betebeharren Amerikako Adierazpena eta Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioak (GEAK) genero berdintasuna eta diskriminaziorik eza aldarrikatzen dute. Beste itun garrantzitsu bat Belém do Pará Konbentzioa dugu, hain zuzen, emakumeek indarkeriarik gabeko bizi izateko eskubidea aldarrikatu zuen. Sistema horretan giza eskubideen urraketengatiko kexa indibidualak aurkeztea aurreikusten da,

³ Bigarren kapituluaz azaltzen dugu Ciudad Juárez hiriko testuingurua eta ezaugarriak.

Estatu kideen barneko instantziak agortuz gero. Hor kokatzen da Campo Algodonero Kasua.

Auzi honetan 2009an Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren epaiak Claudia Ivette González, Esmeralda Herrera eta Laura Berenice Ramos gazteak desagertu eta hiltzeko arduradun gisa Mexikoko Estatua kondenatu zuen. Epai honetan Mexikoko Estatua hiru gazteoi gertatutakoagatik soilik epaitua izan zen. Hala ere, hauxe ez zen kasu bakana izan; ordea, Ciudad Juárezen emakumeen giza eskubideen eta genero diskriminazioaren urraketen ikurra dugu. Izan ere, epaian frogatu zen 1993az geroztik hirian ugaritu egin zirela emakumeen hilketak, eta emakumearen aurkako diskriminazioaren kulturaren eraginpean eta inpunitatea gailentzen zela Chihuahuaiko Estatuan. Hori dela eta, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra epaian erabaki zuen emakumeen aurkako egiturazko indarkeriarekin amaitzeko erreformak, prebentzio- eta arreata-programak ezarri behar zirela, bai eta herritar guztientzako politika publikoak ere. Benetako eragina izan zuten barne legerian? Itaun honi erantzun nahi dio lan honek.

Gradu Amaierako Lanaren galdera nagusi horri erantzuteko iturri ezberdinak erabili ditugu. Lehen mailako iturriak jorratu ditugu, Nazioarteko legeria eta Mexikoko barne legeria aztertuz. Alde batetik, Nazioarteko Erakundeek eta beste eragile batzuk emandako gomendioak eta egindako txostenak. Bestetik, Estatuaren arteko hitzarmenak eta giza eskubideak babesten dituzten adierazpenak. Azkenik, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren Campo Algodonero epaia bera eta hura gainbegiratzen dituzten dokumentuak aztertu ditugu. Horrez gain, Mexikon Nazioarteko prozesu judizial honek izandako eragina neurtzeko Estatuko ordenamendu juridikoa ere ikertu dugu: protokoloak, legeria, eta politiko publiko nagusiak.

Bestalde, bilaketa bibliografiko sakona burutu dugu, hau da, bigarren mailako iturriak ere landu ditugu eta, hain zuzen, gaiaren inguruko doktrina. Liburuak eta datu-baseetako artikuluetan aurkituriko informazio sailkatu dugu. Bestalde, egungo egoera zein den jakiteko kazetaritzako zenbait artikulua hartu ditugu kontuan. Horrez gain, Gobernu Kanpoko Erakundeek ematen duten emakumeen kontrako indarkeria eta feminizidioaren inguruan informazioa ere aztertu dugu.

Lanaren egiturari dagokionez, hainbat ataletan banatu dugu lana. Lehenengo eta behin, gaia testuinguruan kokatzeko, feminizidioaren Kontzeptuaren jatorria eta Ciudad Juárezeko egoera zein den aztertu dugu. Bigarren atalean, Sistema Interamerikarra

arakatzea izan da helburu. Sistema horretan eta beriziki Campo Algodonero Kasuan eragina izan duen Nazioarteko legeria aztertu dugu. Horretan, Mexiko Estatuaren egoera zein den jakiteko oso erabilgarriak izan dira CEDAW-ko Komiteak eginiko Txostenak ere. Hirugarren atalean, kasu zehatz honen prozesua eta epaia aztertu ditugu. Eta laugarrenean, nazioarteko prozedura zein epai horiek, Mexikon eta nazioarteko jurisprudentzian, izandako ondorioak aztertu ditugu. Bosgarren –eta azkenengo– atalean, azken hausnarketa bat egin dugu, aztertutako ideia nagusiak batzeko. Bertan, lan honen bidez egindako ikerketa kontuan hartuta itaun nagusiari erantzungo diogu: nazioarteko ebazpenek benetako aldaketak eragiten dituzte barne mailan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Mexikon?

2. Testuingurua eta kontzeptua: Ciudad Juárez eta feminizidioa

2.1 Ciudad Juárezeko emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegi orokorra

Ciudad Juárez, Mexikoko Chihuahua estatuaren iparraldean dago kokatuta, Mexiko eta Estatu Batuen arteko mugan. Azken 30 urteotan Ciudad Juárez feminizidioen ikur bihurtu da Mexikon zein nazioarte mailan. 1993 urtetik 2017ra ia 2.000 emakume hil egin dituzte bertan eta, horrez gain, dozenaka desagertu daude⁴. Baina zergatik gertatu dira horrenbeste emakumeen kontrako eraso Ciudad Juárezen? Zeintzuk dira indarkeria hori bultzatu duten faktore nagusiak? Arazo hau aztertu duten ikertzaileek⁵ hiru eragile azpimarratzen dituzte.

⁴ Ez da erraza Ciudad Juárezen izandako emakumeen kontrako erasoak zehatz mehatz zenbatzea. Hemen emandako datuak hurrengo argitalpenetik hartu ditugu: Juárez, Javier (2017). “Comunicación, ética y feminicidio”, *Cuadernos Intercambio sobre Centroamérica y el Caribe*, 14, 19. Egia esanda, Campo Algodonero Sententzian bertan islatzen da feminizidioen kopurua zein den jakiteko zailtasuna: “Informes aportados como prueba al Tribunal, así como la prueba remitida por parte del Estado, demuestran que no existe consenso sobre las estadísticas de los homicidios de mujeres en Ciudad Juárez. Al respecto, el CEDAW señaló: “[n]o existen registros claros, convincentes sobre la cantidad de mujeres asesinadas y desaparecidas. No hay coincidencia en las cifras que presentan las diferentes instancias del Gobierno y las que citan las ONGs”. Corte Interamericana de los Derechos Humanos, González y otras vs. México (Caso Campo Algodonero), 2009ko azaroaren 16a, 88. paragrafoa.

⁵ Hala nola: Aziz, Alberto (2012). “Violencia y destrucción en una periferia urbana. El caso de Ciudad Juárez, México”, *Gestión y política pública*, 21, 227-268; eta Cramausse, Chantal (2012). “Cuando Ciudad Juárez se llamaba Paso del Norte: violencia, frontera y mujeres”, Salvador Bernabéu eta Carmen Mena (komp.), *El feminicidio de Ciudad Juárez. Repercusiones legales y culturales de la impunidad*. Sevilla: Universidad Internacional de Andalucía. 21-44.

Lehenik eta behin, hiria maquila-industriaren inguruan garatu egin da, eta Estatu mailan gune industrial oso garrantzitsu bihurtu da. Industria honen lan baldintzak oso latzak dira. 1994an Kanadak, Mexikok eta Estatu Batuek sinatutako Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna indarrean sartu zenean, maquila-industriaren hedapena bizkortu egin zen. Industrializazioaren garapenak eta Ciudad Juárezen etengabeko maquilen hazkundera, barne migrazio fluxu masiboak erakarri zituzten. 20 urteren buruan, Mexikoko beste estatu batzuetatik biztanle ugari iritsi ziren, eta ondorioz hiria izugarri hazi egin zen. Etorrin gehienak landa eremutik etorritako baliabiderik gabeko emakumeak izan dira⁶. Prozesu honetan, maquila-industriaren lan merkatua feminizatu egin da. Enpresetako buruzagiek emakumeei esleitutako ustezko ezaugarriak, otzanak eta merkeak izatea alegia, bilatu baitituzte. Gainera, Hego Amerikako beste herrialdeetatik Estatu Batuetara heltzeko asmoa duten emigrante asko hiri-muga honetatik igarotzen dira. Hala ere, azkenean migratzaile asko hiriko lan-merkatu informalean sartzen dira, migrazio-prozesua motela baita, eta asiloa nekez lortzen delako⁷. Industria hedatu den arren, hiriak nahiko azpiegitura pobreak eta azpigaratuak ditu.

Bigarrenik, narkotrafikoak eta hiriko pobrezia-baldintzek delituzko jokaeren igoera ekarri dute, besteak beste, krimen antolatua, pertsonen trata, legez kanpoko immigrazioa, prostituzioaren ustiapena, eta abar. Narkotrafikoak eta Estatuko egituren ustelkeriak inpunitatea eragin dute.⁸ Horrela, Estatua arazoaren parte bihurtu da. Izan ere hilketak ikertu eta justizia bilatu beharrean, biktimak eta haien familiak erantzuletzat tratatu ditu. Maila guztietako administrazioek elkar babestu dute, beren hutsegiteak ezkutatuz eta zigorgabetasuna sustatuz. Nesken eta emakumeen hilketak eta desagertpenak babestu eta bultzatu egin dituen Estatua dugu Mexiko.

Adituek Ciudad Juárezeko emakumeen kontrako indarkeriaren hirugarren eragile bat aipatu ohi dute. Mexikoko gizartean egiturazko matxismoak eragin handia izan du feminizidioen hazkundera eta giza eskubideen urraketan. Genero-rolak indartsu erroturik

⁶ Juárez, Javier (2015). *Estrategias y campañas de desinformación gubernamental y manipulación informativa en relación a los feminicidios y secuestros de mujeres y niñas en Ciudad Juárez entre 1993 y 2013*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid. 39-50. Eskuragarri hemen: <https://eprints.ucm.es/id/eprint/33366/1/T36463.pdf>.

⁷ Aguirre, Olivia (2021). "El feminicidio en Ciudad Juárez: una perspectiva jurídica", *Vía Iuris*, 30, 16-17. Eskuragarri hemen: <https://revistas.libertadores.edu.co/index.php/ViaIuris/article/view/1094>.

⁸ Boira, Santiago, Marcuello-Servós, Chaime, Otero, Laura, Sanz Barbero, Belén eta Vives-Cases, Carmen. (2015). "Feminicidio y feminicidio: Un análisis de las aportaciones en clave iberoamericana", *Revista Internacional de Trabajo Social y Ciencias Sociales*, 10, 25-28.

daude herrialde honetan. Horrexegatik, emakumea maquila-industriaren lan merkatuan sartu izanak gizarte-sektore ultrakontserbadoreen eta misoginoenen erreakzioa eragin zuen. Ikuspegi kontserbadore eta matxista honen arabera, emakumea, biktima izan beharrean, erantzule bihurtuko zen⁹.

Testuinguru honetan kokatzen da Ciudad Juárezeko emakumeek pairatzen duten indarkeria. 90eko hamarkadaren hasieran, feminizidio sistematikoen lehen salaketak izan ziren. 1993an emakume eta nerabeen bahiketa ugari agerian geratu ziren. Kasu hauetan *modus operandi* zehatz bat antzeman zen: bahitu ostean, emakumeak desagertzen ziren eta handik egun batzuetara beraien gorpuak tortura eta bortxaketa zeinu nabarmenekin agertzen ziren¹⁰. Mexikoko agintariak Ciudad Juárez-en gertatzen ziren emakumeen aurkako krimen horiek (adibidez, Campo Algodonero kasua) delituzko egintza indibidual gisa tratatu zituzten, emakumearen aurkako egiturazko indarkeria onartu gabe¹¹.

Egoeraren larritasunaren ondorioz, Ciudad Juárezeko feminizidio fenomenoak nazioarteko gorteetara iritsi zen, hala nola Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrera (GEGI), zeinak González y otras vs. México (Campo Algodonero) kasuaren berri izan zuen. Bertan, Ciudad Juárezeko emakumeek sufritzen duten egoera agerian geratu zen, eta Gorteak ondorioztatu zuen hildako gazteak muga-hiri horretan bizi zen emakumearen aurkako indarkeriaren biktima izan zirela. Gorteak Ciudad Juárez-en existitzen den egoera azaltzeko eta biktimek sufritu dituzten erasoak defintzeko genero-arrazoiengatik emakume-hilketa kontzeptua erabili zuen: “*homicidio de mujer por razones de género, también conocido como feminicidio*”¹².

⁹ Juárez, Javier (2015). *Op cit.* 49-51.

¹⁰ Hala ere, ikertzaile eta kazetari askok ondorioztatu dute Ciudad Juárez-en izandako emakumeen hilketa eta bahiketa sistematikoak dagoeneko hasi zirela laurogeiko hamarkadan zehar.

¹¹ Ginés, Emilio (2012), “Derechos humanos, mujer y frontera: el feminicidio de Ciudad Juárez ante la Corte Interamericana de Derechos Humanos”, Salvador Bernabéu eta Carmen Mena (konp.), *El feminicidio de Ciudad Juárez. Repercusiones legales y culturales de la impunidad*. Sevilla: Universidad Internacional de Andalucía. 130-131.

¹² Resolución de la Corte Interamericana de los Derechos Humanos del caso González y otras (Campo Algodonero) vs. México supervisión del cumplimiento de la sentencia. Dokumentua, 2013ko maiatzaren 21a, 143. paragrafoa.

2.2 Feminizidioaren kontzeptualizazioa

70eko hamarkadan, feminizidio hitza agertu zen lehen aldiz. Kontzeptu honen arabera, feminizidioa gorrotoak, mespretxuak, plazerak edo jabetza-zentzuak eragindako emakumeen erailketa zen. Mexikon, besteak beste, Marcela Lagardek¹³ garatu du kontzeptua 1994tik aurrera. Hark horrela definitu zuen feminizidioa: “conjunto de delitos de lesa humanidad que contienen los crímenes, los secuestros y las desapariciones de niñas y mujeres en un cuadro de colapso institucional. Se trata de una fractura del Estado de derecho que favorece la impunidad”¹⁴.

Definizio honek elementu ezberdinak eta berriak aipatzen ditu. Alde batetik, Lagarderen kontzeptuak feminizidioa gizarteriaren aurkako krimen bat bezala definitzen du. Beraz, feminizidioak giza eskubideen urratzetzat hartzen du. Bestetik, kontzeptu honek inpunitatea nabarmentzen du. Hori dela eta, Estatuak jokatzeko duen rolari garrantzi handia ematen dio. Inpunitate hori, Mexikoko legeak feminizidioa (indarkeria feminizida, hobeto esanda) definitu zuen lehen aldian ere kontuan hartu zuen¹⁵. Beraz, Estatuak ez dituen emakumeen bizitzan segurtasun-baldintzarik sortzen eta bermatzen feminizidioa ematen da; horregatik, feminizidioa Estatu-krimena da¹⁶.

Campo Algodonero kasuan erasotzaileek gorpuak leku publikoetan utzi zituzten. Gorpuak abandonatzea biktimekiko beste zigor bat bezala ulertu behar da. Izan ere, egintza honek gizarteari mezu bat bidaltzen dio: emakumeak eraso daitezke erasotzaileek ondoriorik eta zigorrik jasan gabe.

¹³ Marcela Lagarde Mexikoko antropologoa eta ikertzailea dugu. Genero eta feminismoaren inguruan artikulua eta liburu asko argitaratu ditu, hala nola “Mujeres, Globalización y derechos Humanos” edo “El feminismo en mi vida”. Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko katedraduna da. Gainera, Ciudad Juarezeko egoera deskribatzeko feminizidio terminoa erabili zuen eta Mexikoko kongresuan Feminizidioaren Batzorde Berezia sortzea lortu zuen Ciudad Juárez-eko emakumeen hilketak ikertzeko. Feminizidio delitua sustatu zuen Zigor Kode Federalean, eta *Ley General de Acceso de las Mujeres a Una Vida Libre de Violencia* legea ere bultzatu zuen.

¹⁴ Garza, Minerva (2013). *La violencia en contra de las mujeres: una violación del derecho a la igualdad y al principio universal de no discriminación: especial referencia a México*. Ciudad: UNED. Universidad Nacional de Educación a Distancia, 299-300.

¹⁵ *Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia*, Mexikoko Aldizkari Ofizialean 2007ko otsailaren 1ean argitaratua, 21. artikulua. “Violencia feminicida: Es la forma extrema de violencia de género contra las mujeres, producto de la violación de sus derechos humanos, en los ámbitos público y privado, conformada por el conjunto de conductas misóginas que pueden conllevar impunidad social y del Estado y puede culminar en homicidio y otras formas de muerte violenta de mujeres.”

¹⁶ Vargas, Flor Carina eta Araiza, Alejandra (2021). “Acción política frente a la violencia feminicida en México. Experiencias de una Investigación Activista Feminista”, *Empiria*, 50, 111.

Gainera, feminizidioak ez dira ustekabeen sortzen diren kasu isolatuak. Feminizidioa emakumeek jasaten duten azken indarkeria-ekintza larriena dugu eta etenik gabeko emakumeen aurkako indarkeria historikoaren ondorioa dira. Hori neska gazteen eta emakumeen krimenak, bahiketak eta desagertzeak barne hartzen dituen delituen multzoa da.

Gobernuz Kanpoko Erakunde askoren salaketa publikoen ondorioz, nazioarteko komunitateak Mexikoko feminizidioetan jarri zuen arreta, batez ere Ciudad Juarezeko feminizidioetan. Horrela, 2005ean Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioak (CEDAW) Mexikori zuzendutako Txosten batean Estatuak feminizidioak zorrotz zigor zitzaizkion. Gomendioen artean, emakumeen aurkako indarkeria ekiditeko barne legedia sortzera azpimarratu zuen¹⁷.

Hurrengo urteetan zenbait aurrerapen eman ziren Mexikoko barne legedian. 2006an *Ley General para la Igualdad entre Mujeres y Hombres* onartu zen. Lege honek emakumeen eta gizonen artean desberdintasun-baldintzak daudela onartzen zuen. Gainera, gobernu maila (udala, federala zein zentrala) guztietan aplikatu beharreko legea dugu. Lege honek genero-desberdintasuna prebenitzeko eta desagerrarazteko betebeharrak eta neurriak ezartzen zituen. Urte bat geroago, beste pauso garrantzitsu bat eman zen eta *Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia* onartu zen. Lege honen helburu nagusia eremu publiko zein pribatuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arautzea eta bermatzea zen. Gainera, berdintasun substantiboa lortzera bideratuta dauden zenbait instituzio-mekanismoak sortu zituen¹⁸. Lege honek, Ciudad Juárezeko feminizidioak agerian jarri zituzten emakumeen eskaerei erantzuteko sortu zen. Izan ere, bertan lehengo aldiz indarkeria feminizida definitu zen¹⁹.

Harrez geroztik, Mexikon feminizidio delitua tipifikatzeko saiakera ezberdinak eman dira. Tipifikazio prozesu honetan garrantzi handia izan zuen Giza Eskubideen Gorte

¹⁷ Comité para la Eliminación de la Discriminación contra las Mujeres, Informe de México producido por el Comité para la Eliminación de la Discriminación contra las Mujeres bajo el artículo 8 del Protocolo Facultativo de la Convención y respuesta del Gobierno de México CEDAW/C/2005/OP.8/MEXICO, Dokumentua, 2005ko urtarrilaren 27a. 33-36. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/gKP2xS>.

¹⁸ Gaona, Martha, Durán, Roberto eta Espino, Iván (2019). "México, País Femicida", *Revista Electrónica de Estudios Penales y de la Seguridad: REEPS*, 5, 5-7. Eskuragarri hemen: <https://www.ejc-reeps.com/ZAPATA.pdf>.

¹⁹ *Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia*, 21. artikulua.

Interamerikarrak emandako epaia Campo Algodonero kasuan.²⁰ Gainera, azpimarratu behar da aipatutako bi barne lege horik onartu zirela nazioartearen presioaren ondorioz. Alde batetik, Campo Algodonero Kasuaren epaia (2009 urtean eman zen arren, prozesua 2002-tik hasita zegoelako), eta bestetik, aipatutako CEDAW-aren Txostena. Hauek biek Nazioartearen larritasuna eta kezka islatzen zituzten.

3. Campo Algodonero Kasuko nazioarteko tresna juridikoak

Emakumeen aurkako indarkeria mundu mailako egiturazko arazo bat bezala ulertu behar dugu²¹. Horrela ulertu du ere Nazioarte Komunitateak eta emakumeen eskubideak defendatzen dituzten hainbat tresna sortu ditu. Haien artean ditugu Nazioarteko itunak, unibertsalak zein eskualdekoak, eta Nazioarteko Auzitegiak sortu dira azken hamarkadatan. Beste eskualdeko sistema batzuekin konparatuz, giza eskubideen babesean Amerikako kontinentea aitzindaria dugu.

3.1 Nazioarteko legeria: emakumeen giza eskubideak babesten dituzten Konbentzioak

Mundu mailako erabilgarria den emakumeen giza eskubideak babesteko lehenbiziko tresna, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1979ko abenduaren 18an, onartu zuen. Izan ere, Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) ireki zuen Estatuak Tratatu moduan onartzeko. Handik hona, Konbentzioa berretsi egin dute 189 Estatuak, eta bertan botere publikoek esku har dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, ezinbesteko tresna bihurtu da. Estatuak, Konbentzioa berrestean, hitza ematen dute emakumeen kontrako nolanhiko diskriminazioak deuseztatzeko neurriak ezarriko dituztela. Horrez gain, xedapenek eragina izan dezaten, Estatuak hartzen dituzten neurrien berri eman behar diote, aldizkako txosten baten bidez, CEDAW-aren Komiteari, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra emandako aurrera pausuen berri ere.²²

²⁰ Iribarne, Macarena (2015). "Feminicidio en México", *Eunomía: Revista en Cultura de la Legalidad*, 9, 209.

²¹ Hala, 1993ko Giza Eskubideen Munduko Konferentzian, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketatzat hartu behar zela ezarri zen lehenengo aldiz.

²² Emakunde (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa eta gomendioak*, Gasteiz: Emakunde. 9. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/c4tj8T>.

30 artikuluk osatzen dute CEDAW-ren testua. Gainera, CEDAW-aren Komiteak 30 Gomendio Orokor baino gehiagoren bidez Itunaren edukia interpretatu eta garatu du. CEDAW-k Estatuak diskriminazioa zigortzera behartzeaz gain, aurreneurriak hartzera ere behartzen ditu. Gainera, CEDAW esparru publikoan zein pribatuan aplikatu behar da. Beraz, bi alor horietan badu eragina Itunak. Alde batetik, agintari publikoek Estatuaren aurrean emakumeek dituzten eskubideak babestu behar dituzte (berdintasun bertikala). Beste aldetik, Estatuak bereizkeriarik eza bermatu behar dute biztanleen arteko harremanetan (berdintasun horizontala). Hortaz, Estatuak neurririk hartzen ez badu, pasibotasun hori giza eskubideen urraketatzat har daiteke. Hala ere, erantzukizun hau mugatua da, eta kontuan hartu behar da herrialde horrek ikertzeko, saihesteko eta zigortzeko dituen baliabideak zein duen ardura²³. Labur esanda, CEDAW Konbentzioak hiru funtsezko printzipioetan oinarritzen da: bereizkeriarik eza, berdintasun substantiboa y Estatuaren betebeharra²⁴.

Mexikok 1981ean berretsi egin zuen Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa. Geroztik, Konbentzioa berdintasunerako politika publikoetarako eta emakumeen zein nesken aurkako indarkeriari aurre egiteko gida bihurtu da.²⁵ Gainera, Komiteak emakumeen egoera zein den aztertzeko eta ikertzeko Estatuak egindako aldizkako txostenaren azterketa erabiltzen du. Prozedura hori 18. artikuluan aurkitzen dugu²⁶, eta horren bidez, Komiteak Estatuak Konbentzioa betetzen dutela gainbegiratzeko, Estatu bakoitzeko emakumeen eskubideak eta genero-berdintasunerako politikak aztertuz. Prozesu horietan honako erakunde eta organoek hauek parte har dezakete: Estatuaren gobernuak, Nazioarteko Erakundeak, Nazio Batuetako organo eta organismoak eta Gobernuaren Kanpoko Erakundeak. Azken horien parte hartzea

²³ Medina, Rosas (2010). *Campo Algodonero. Análisis y propuestas para el seguimiento de la sentencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos en contra del Estado mexicano*. Distrito Federal, México: Red Mesa de Mujeres de Ciudad Juárez A. C. eta CLADEM. 42.

²⁴ González, Lydia (2020). *Los derechos humanos de las mujeres y el movimiento feminista transnacional: La CEDAW, sus procedimientos e impactos locales*. España: Universitat de València. 139-149.

²⁵ Comité para la Eliminación de la Discriminación contra las Mujeres, Informe de México producido por el Comité para la Eliminación de la Discriminación contra las mujeres bajo el artículo 8 del Protocolo Facultativo de la Convención y respuesta del Gobierno de México, CEDAW/C/MEX/9, Dokumentua, 2015eko urtarrilaren 25a. Eskuragarri hemen: <https://onx.la/c981e>.

²⁶ Estatu Kideek behartu egiten dute beren burua eta honek zenbait eginkizun bete behar dituztela esan nahi du. Alde batetik, legegintzazko, auzibidezko, administraziozko edo bestelako neurriei buruzko egindako aurrerapenak aztertu behar dituzte txosten batean, eta Nazio Batuen Idazkari Nagusiari aurkeztu. Gainera, txostenetan adierazi ahal izango dira Konbentzio honetan ezartzen diren beharkizunen betetze-neurriari daragioten faktore eta zailtasunak.

oso nabarmena izan da emakumeen Giza Eskubideak babesteko. Horrez gain, Estatuari ezohiko txosten bat aurkeztea eskatu ahal die Komiteak.

1999an Batzar Nagusiak CEDAW-aren Hautazko Protokoloa onartu zuen, eta berriro Estatu guztiek berresteko aukera izan zuten horretan parte hartzeko. Lotura du CEDAW-rekin, baina Estatuak dokumentu hori ere adostu behar dute, beraientzat loteslea izateko. Bertan, salaketa eta ikerketa prozedurak ezarri ziren²⁷. Lehenengoa, Komunikazio-prozedura dugu, eta 2. artikuluan ezarrita dago. Prozedura horren bidez, Estatuaren jurisdikziopean dagoen pertsonak edo pertsona-talde batek salatu dezake Estatu hori Konbentzioan aipatutako edozein eskubide urratzeagatik. Horrela, biktimek medeapen bat jasotzeko aukera dute. Kalte-ordainekin batera, bestelako neurriak ere ezartzen dira egoera hori berriz gerta ez dadin. Hala ere, Komiteak ez du jakinarazpenik aztertuko, baldin eta barne-jurisdikzioko errekurtso guztiak agortu direla egiaztatzen ez bada (4. artikulua).

Beste aldetik, ikerketa prozedura dugu (8. artikulua). Horren bidez, Batzordeak berak ekin ahal dio ustezko giza eskubideak bortxaketak ikertzeari. Horretarako, bortxaketak oso larriak izan behar dira, bortxaketen izaera sistematikoa izateagatik edo ekintzen gogortasuna dela eta. Izan ere, prozedura hori erabili zen lehengo aldiz, 2003an, Ciudad Juárezeko feminizidioak aztertzeke izan zen²⁸. Hain zuzen ere, eta aurrerantzean aztertuko dugun moduan, zenbait Gobernu Kanpoko Erakundek Ciudad Juárezeko emakumeek pairatzen zuten egoera salatu zuten. Ikerketa amaitu eta gero, Batzordeak zenbait gomendio eman zizkion Mexikoko Estatuari emakumeen Giza Eskubideak babesteko eta hiltzaileen zigorgabetasunarekin amaitzeko²⁹.

Legeria horrek erakusten du nazioarteko Estatu askok benetako berdintasuna lortu eta genero-indarkeria ezabatzeko nahia dutela. Itunok zenbait helburu dituzte, besteak beste, Estatuak legeak aldatu edo sortu, Administrazioaren erantzukizunak argitu, politika publikoak bideratu edo emakumeen aurkako indarkeriari eraginkortasunez aurre egin.

²⁷ Asamblea General, Protocolo Facultativo de la Convención sobre la Eliminación de todas las formas de Discriminación contra las Mujeres, Resolución A/54/4, Dokumentua, 1999ko urriaren 6a.

²⁸ Comité para la Eliminación de la Discriminación contra las Mujeres, Informe de México... CEDAW/C/2005/OP.8/MEXICO.

²⁹ González, Lydia. *Op cit.* 141-150.

Bestalde, Amerikako Estatuak Erakundea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan hainbat eskualdeko tresna juridiko sortu ditu, hala nola emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko nazioarteko tratatu zehatzak.

Horietako bat Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Konbentzioa Interamerikarra (Belém do Pará Konbentzioa izenekoa) dugu eta 1994ko ekainaren 9an onartu zen. Konbentzioa emakumeen giza eskubideak babesteko nazioarteko eskualdeko tresna dugu. Emakumearen aurkako indarkeria definitzen du 1. artikuluan: “cualquier acción o conducta, basada en su género, que cause muerte, daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico a la mujer, tanto en el ámbito de lo público como en el privado”. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria hiru esparru ezberdinetan ematen dela baieztatzen du: lehenik eta behin, esparru pribatuan, biktima eta erasotzailearen artean harremana dagoenean (senidekoen artean, adibidez); bigarrenik, Estatuak berak edo bere funtzionarioek onartu edo burutzen duten indarkeria; eta, hirugarrenik, eremu publikoan, edozein pertsonak erabiltzen duen indarkeria gainontzeko esparruetan³⁰.

Hortaz, Belém do Pará Konbentzioa funtsezkoa da genero-indarkeriaren gaia jorratzeko. Gainera, Estatuak emakumeen aurkako indarkerian duen erantzukizuna ezartzen du Konbentzioak. Izan ere, Konbentzioan Estatu Kideek adostu zuten indarkeria hori gaitzetsi, zigortu eta desagerrarazteko politikak ezartzeko betebeharra zutela. Azpimarratzekoa da Belém do Pará Konbentzioak erabiltzen duen emakumearen kontrako indarkeriaren ikuspuntua. Batetik, giza eskubideen urreketatzat hartzen du; eta bestetik, indarkeria horren sustraian dagoen errealitatea aipatzen du: “una manifestación de las relaciones de poder históricamente desiguales entre mujeres y hombres”.

Konbentzioak jasotzen dituen eskubide eta betebeharraren eraginkortasuna lortzeko zenbait babes-tresna ditugu³¹. Lehenengo eta behin, ebaluazio- eta laguntza-prozesu jarraitua eta independentea behar da. Horretarako, Konbentzioa berretsi duten Estatuak txostenak egin behar dituzte eta Emakumeen Batzar Interamerikarrari (EBI) bidali³². Txosten horietan hartutako neurriei buruzko informazioa agertu behar da,

³⁰ 1994-ko ekainaren 9an onartutako Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerika arteko Konbentzioa, 2. artikulua.

³¹ Ushakova, Tatsiana (2013). “La protección contra la violencia de Género en el Sistema Interamericano de derechos humanos”, *Dereito: Revista xuridica da Universidade de Santiago de Compostela*, 1, 62-63. Eskuragarri hemen: <https://revistas.usc.gal/index.php/dereito/article/view/1144>.

³² Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerika arteko Konbentzioa, 1994-ko ekainaren 9a, 10. artikulua.

besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko hartutako neurriak, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko neurriak, berauek aplikatzean ikusten diren zailtasunak eta emakumeen aurkako indarkeria eragiten duten faktoreak. 2004 urtetik aurrera, hartutako neurrien jarraipena Mecanismo de Seguimiento de la Convención de Belém do Pará-ren bidez (aurrerantzean, MESECVI) egiten da. MESECVIren Estatutua 2004ko urriaren 26an onartu zen eta bertan bere funtzionamenduaren oinarriak ezarri ziren. MESECVIk Konbentzioaren ezarpenean Estatu Kideek egindako aurrerapenak aztertzen ditu, baita Estatuak emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzun iraunkorren erronkak ere. Estatu Kideetako eta Adituen Batzorde baten arteko lankidetzeta-foro batean oinarritzen da³³.

Beste bi babes-mekanismo nagusi daude. Alde batetik, Estatu Kideek edo EBI-k berak Konbentzioaren interpretazioari buruzko kontsultarako iritzia eskatu ahal dizkio Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrari³⁴. Beste aldetik, Konbentzioaren 12. Artikulua jarraituz, edozein pertsonak edo Gobernuz Kanpo Erakunde Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean salatu dezake Konbentzioaren 7. artikulua urraketa³⁵. Horrela, 12. artikulua argi eta garbi murrizten du GEGI-k Belém do Pará aplikatzeko duen eskumena, 7. artikulura mugatzen baitu³⁶, eta azken hau erabakigarria da Estatuaren erantzukizuna zehazteko, hau da, emakumearen aurkako indarkeria prebenitu, ikertu eta zigortzeko behar den arretaz jokatu duan ezartzeko.

Konbentzioaren arabera, Estatua arduratu behar da emakumeek, eremu publikoan zein pribatuan, sufritzen dituzten erasoez. Honek, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jardutera behartzen ditu; hau da, Estatua eginbide egokia (*diligencia debida*)³⁷

³³Organización de Estados Americanos (2022). “Mecanismo de Seguimiento de la Convención de Belém do Pará (MESECVI)”, *OEA Más derechos para más gente*. Eskuragarri hemen: <https://www.oas.org/es/mesecvi/nosotros.asp> (Kontsulta-eguna: 2022/03/09) .

³⁴ Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerika arteko Konbentzioa, 1994-ko ekainaren 9a, 11. artikulua.

³⁵ *Ibidem*, 12. artikulua.

³⁶ Palacios, Yannesit (2011). “Género en el Derecho Constitucional Transnacional: Casos en la Corte Interamericana de Derechos Humanos en conmemoración de los 100 años del Día Internacional de los Derechos Humanos de las Mujeres”, *Revista Facultad de Derecho y Ciencias Políticas*, 114, 132.

³⁷ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak horrela definitu zuen eginbide kontzeptua: “*organizar todo el aparato gubernamental y, en general, todas las estructuras a través de las cuales se manifiesta el ejercicio del poder público, de manera tal que sean capaces de asegurar jurídicamente el libre y pleno ejercicio de los derechos humanos para dar cumplimiento a sus obligaciones internacionales sobre derechos humanos. Como consecuencia de esta obligación los Estados deben prevenir, investigar y sancionar toda violación de los derechos reconocidos por la Convención y procurar, además, el restablecimiento, si es posible, del derecho conculcado y, en su caso, la reparación de los daños producidos por la violación de los derechos humanos*”. GEGI- Caso Velásquez Rodríguez, Sentencia de Fondo, 1988ko uztailaren 29a (166. paragrafoa).

izan behar du eta eraso horiek eta horien ondorioak prebenitzeko, ikertzeko, zigortzeko eta konpontzeko neurriak hartu behar ditu. Hortaz, Estatuak emakumeen jasaten duten indarkeriaren berri baldin badu, modu egokian eta eskura dituen baliabide guztiak erabili behar ditu gertaera horri erantzuteko. Estatuaren diligenzia, aldi berean estatuen betebeharra eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipio informatzailea dugu.

Amerika Kontinentean emakumeen eskubideak babesten dituen beste itun garrantzitsu bat Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarra dugu. Hitzarmen hau 1969ko azaroaren 22an onartu zen. Tratatuaren helburua bertan aurkitzen ditugun eskubideak babestea eta bermatzea da. Hala, GEHA berresten duten estatuentzat jurisdikzio loteslea ezartzen du. Hala ere, sistema nazionalak osatzen ditu eta beti ere modu subsidiarioan aplikatu behar da. Estatuko botere-publikoak dira eskubide horiek errespetatu eta bermatu behar dituztenak haien jurisdikzioaren menpe dauden pertsona guztiei. GEHAk berak hitzaurrean horrela ezartzen du: *“justifican una protección internacional, de naturaleza convencional coadyuvante o complementaria de la que ofrece el derecho interno de los Estados americanos”*³⁸. Beraz, hitzarmenean ezarritako babes-sistema soilik jarriko da martxan, baldin eta Estatu kideek eta botere publikoek ez dituztenean eskubideak bermatzen edo behar bezala jarduten giza eskubideak babesteko eta garatzeko.³⁹ Estatu Kideek, Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa onartu eta berrestean, fede onez betetzeko konpromisoa hartzen dute (*pacta sunt servanda*⁴⁰).

Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarreko lehenengo ataleko lehenengo kapituluaren Estatuentzako betebeharrak juridiko orokorrak aurkitzen ditugu. 1. artikulua Estatuak bere jurisdikziopean dagoen pertsona orori hitzarmenean aitortutako eskubideak eta askatasunak bermatzeko eta hauek errespetatzeko betebeharra ezartzen du. Gainera, artikulua honek diskriminazioari egiten dio erreferentzia, ezartzen baitu eskubideak bermatu behar direla inolako bereizkeriarik gabe, jaiotza, arraza, sexua, erlijio, iritzi nahi bestelako egoera sozial edo ekonomikoak aintzat hartuta. Beraz, Estatuak bere egiturak antolatu behar ditu giza eskubideak benetakoak eta eragingarriak izan daitezen.

³⁸ Giza eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarra. Hitzaurrea.

³⁹ Nogueira, Humberto (2017). “El control de convencionalidad por los Estados parte de la Convención Americana sobre Derechos Humanos y tribunales chilenos”, *Revista de Derecho: Publicación de la Facultad de Derecho de la Universidad Católica de Uruguay*, 15, 144-145.

⁴⁰ 1969ko urtarrilaren 23ko Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmena.

Bigarren betebeharrak orokorra barne-ordenamendu juridikoa, giza eskubideen Amerika arteko estandar edo irizpideetara egokitu behar dela ezartzen du (2. artikulua). Beraz, hitzarmena berrestean Estatuak ezin dute haien barne legedia lehenetsi baldin eta ordenamendu juridiko honek eskubide-estandar minimoen aurka badoa. Artikulu horre hitzetan, Estatuak duten betebeharra zera da:

“Deber de adoptar disposiciones de Derecho interno. Si el ejercicio de los derechos y libertades mencionados en el artículo no estuviere ya garantizado por disposiciones legislativas o de otro carácter, los Estados Partes se comprometen a adoptar, con arreglo a sus procedimientos constitucionales y a las disposiciones de esta Convención, las medidas legislativas o de otro carácter que fueren necesarias para hacer efectivos tales derechos y libertades.

Ondorioz, honek eragin dezake Estatuak barne legedian aldaketak egin behar izatea. Bestalde, Konbentzioaren gainerako artikuluek pertsona orok ditugun eskubide eta askatasunak aitortzen ditu, hala nola torturaren debekua, bizitza eta osotasun fisikoa nahiz moraleko eskubidea (4. eta 5. artikulua), esklabotzaren debekua (6. artikulua), eta abar. Hori bai, Estatuari erantzukizuna ezartzeko, giza eskubideen urraketak, 1. tituluko 1. kapituluko betebeharrekin lotu behar dira.

Gaur egun, emakumeen eskubideak babesten dituzten hainbat nazioarteko tratatu daude. Horrela, nazioarteko legeriak printzipio eta babes-estandar ugari ezarri ditu. Nazio Batuen eta eskualdeetako erakundearen kontrol- eta jurisdikzio-organoen jurisprudentziari esker, hitzarmenetan aurkitzen ditugun kontzeptuak garatuz joan dira eta haien epaietan aipatutako nazioarteko legeria hau aplikatzen dituzte. Horietako Gorte bat Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra dugu.

3.2 Sistema Interamerikarra: Giza Eskubideen Batzordea eta Gortea

1948 urtean, Amerikako Estatuaren Erakundeak (AEE) Gizonaren Eskubide eta Betebeharren Amerikako Adierazpena onartu zuen. Horrek Giza Eskubideen Sistema Interamerikarraren sorrera ekarri zuen. Gaur egun, bi organo nagusik osatzen dute Sistema Interamerikarra: Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra (aurrerantzean, Batzordea) eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra.

Batzordea AEE-ren organo nagusia eta autonomoa da, zazpi kide independentek osatzen dutena, hau da, ez dute Estatu zehatzik ordezkatzeko. Batzordeak hiru eskumen nagusi ditu. Lehenengoa, giza eskubideen urraketak salatzen dituzten eskaera indibidualak jasotzea, aztertzea eta ikertzea. Fase honi sakoneko fasea deritzogu eta, bertan, batzordeak erabakitzen du aztertutako kasuan giza eskubideak urratu diren edo ez. Fase hau txosten batekin amaitzen da eta, urraketa eman dela ondorioztatzen bada txostenak gomendioak ere izango ditu⁴¹. Bigarrena, salaketa hori Konbentzioko giza eskubideren baten urraketa bat izan daitekeela ondorioztatzen badu, Gortearen jurisdikzioaren menpe jartzea erabaki behar du. Eta azkena, Batzordeak Gorteari aurkezten dizkion kasuetan, Batzordeak berak ere esku hartzeko betebeharra du. Gainera, Estatuetakoko eskubideen egoerari buruzko txostenak ere egin ditzake⁴².

Beste aldetik, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra (GEGI) Giza Eskubideen Sistema Interamerikarraren organo jurisdikzional autonomoa dugu⁴³. GEGI giza eskubideak babesten dituen eskualde honen auzitegia da⁴⁴. Gortea ez zen sortu 1969 arte, Giza Eskubideen Amerikarteko Konferentzia Espezializatua burutu zenean San Jose hirian (Costa Rica). Bertan, Estatu Kideen ordezkariak Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena (GEAH) ezarri zuten, 1978 urtera arte indarrean sartu ez zena⁴⁵.

Gorte horrek GEAH interpretatzeko eta aplikatzeko eskumena du. Era berean, giza eskubideen arloan sortu diren Amerikako zenbait Tratatu aplikatzeko ahalmena ere badu (batez ere, Belém do Pará Konbentzioa), baldin eta Estatu kideek Konbentzioa berretsi badute. Halaber, Estatuak berariaz onartu egin behar dute Gorteak GEAHren interpretazioari edo aplikazioari duen eskumena.

Gorteak bi eginkizun nagusi betetzen ditu: kontsulta-funtzioa eta funtzio-jurisdikzionala. Alde batetik, kontsulta-funtzioaren⁴⁶ bidez, Amerikako Estatuak Erakundea Estatu Kide batek eskatu ahal dio Gorteari, barne eta nazioarteko tresna

⁴¹ Organización de Estados Americanos (2022). “Comisión Interamericana de Derechos Humanos, Informes de Fondo”, *OEA Más derechos para más gente*. Eskuragarri hemen: <https://www.oas.org/es/cidh/decisiones/fondos.asp> (Kontsulta-eguna: 2022/03/24).

⁴² Medina, Rosas. *Op.cit.* 17-20.

⁴³ Rábago, Elisabeth eta Camarillo, Laura (2018). “El papel de la Corte Interamericana de Derechos Humanos como intérprete de la Convención Americana sobre Derechos Humanos”. *Parlamento y Constitución. Anuario*, 19, 171-195. Argitalpen honek oso azterketa zehatza egiten du GEGI-ren inguruan.

⁴⁴ Giza Eskubideak babesten dituzten beste bi eskualdeko Gorte daude bakarrik: Giza Eskubideen Europar Auzitegia eta Afrikako Giza Eskubideen eta Herrien Gortea.

⁴⁵ Hamaikagarren Estatu kideak Konbentzioa berretsi zuenean, indarrean jarri zen.

⁴⁶ 64. art Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena, 1969ko azaroaren 22a.

juridikoen arteko bateragarritasunari buruzko aholku-irizpideak ematea. Beraz, EAA-ko kide diren Estatuak Gorteari Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmenari buruzko edo giza eskubideen arloko beste tratatu batzuen interpretazioei buruz galdetu ahal diote.

Beste aldetik, organo juridikzionala denez gero, bere ardurapean jarritako gatazka juridikoak ebatzez ere arduratzen da, eta berauek epai baten bidez ebatziko ditu. Izan ere, Konbentzioak babesten duen eskubide edo askatasun bat urratu den ala ez zehaztuko du. Urraketa izan dela frogatuz gero, bi neurri mota hartuko ditu: batetik, biktimari kalteak medeatzeko neurriak; bestetik, eskubide urraketaren eragileen inguruko neurriak. Batzordeak Gortean kasu bat aurkezten duenean, Estatuaren nazioarteko erantzukizuna zehaztu nahi du. Estatu epaitu egiten da bere osotasunean, alegia Estatuaren hiru botereak (legegilea, betearazlea eta judiziala) zein administrazioaren maila guztiak (zentrala, estatuak edo erregioak, probintziak, udalerrriak eta abar). Izan ere, Mexikoko Estatuaren kasuan, Estatu federala den arren, erakunde federatibo guztiak epaitzen dira eta unitate bakartzat hartzen dira.

Gortearen epaiak eta ebazpenak derrigorrezkoak dira eta ez dago helegiterik. Hala ere, epaiaren zentzuari edo irismenari buruzko desadostasunik izanez gero, alderdiek, hurrengo laurogeita hamar egunen buruan, Gorteari epaia interpretatzea eska diezaioke, baina eskaera horrek ez ditu epaiaren efektuak eteten.

Gorteak berak badu ebazpenaren betetzea gainbegiratzeko betebeharra. Horretarako, Estatuak txostenak aurkeztu behar dituzte. Gainera, kasuari buruzko beste datu garrantzitsu batzuk eska ditzake Gorteak, ebazpena betetzen den ebaluatzeko. Gorte Interamerikarrak zazpi epailek osatzen dute, erabakiak epaileen gehiengoz hartzen dira, eta presidenteak kalitatezko botoa du berdinketa izanez gero. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak ebatzitako kasuek garrantzi handia dute barne mailan, Gorteak interpretazio- eta babes-irizpideak ezartzen baititu.

Nazioarteko estandarren eta zuzenbide nazionalaren arteko integrazioa lortzeko, Estatuetakoko agintariak arau berriak ezarri edo aldatu behar dituzte. Horrela, ezarritako irizpideak txertatzeko konstituzio-erreformak⁴⁷, lege-erreformak eta interpretazio-jarraibideak eman dira zenbait Estatutan. Era berean, Gorteak Estatuko barne-auzitegietarako jurisprudenzia nabarmena sortzen du, hau da, Giza Eskubideak

⁴⁷ Adibidez, Txileko Konstituzioko 12. artikulua aldaketa, 2001ko otsailaren 5eko *Última tentación de Cristo vs. Chile* epaiaren ondorioz.

babestuko dituzten aurrekariak ezartzen ditu. Gainera, kondena-epaiek Estatuaren ordenamenduen hutsune edo gabeziak agerian uzten dituzte.

4. González y otras vs México (Campo Algodonero)

4.1 Egitateak eta prozedura judiziala

2001eko azaroaren 6an, hildako zortzi emakumeren gorpuak aurkitu ziren, denak kotoia erein egiten den landa-eremu batean, Ciudad Juárez hirian. Hildakoen artean, Claudia Ivette González (20 urte), Esmeralda Herrera Monreal (15 urte) eta Laura Berenice Ramos (17 urte) gazteen gorpuak aurkitu zituzten.

Emakume eta neska horiek egun ezberdinetan desagertu ziren. Laura Berenice Ramos, ikaslea, irailaren 22an desagertu zen. Claudia Ivette González, maquila-enpresa bateko langilea, urriaren 10ean desagertu zen eta Esmeralda Herrera Monreal, etxeko langilea, urriaren 29an. Kasu guztietan biktimen senideek desagertzeak salatu egin zituzten lehenengo 72 orduetan⁴⁸. Polizia-agenteeek desagertze-erregistroak, bilaketa-kartelak eta aitorpenak hartu zituzten bakarrik. Salaketak aurkeztu ziren arren, ez zen ikerketa gehiagorik egin eta, noski, ez ziren errudunak aurkitu ezta zigortu ere⁴⁹. Gorputzek sexu-indarkeriaren zantzuak zituzten eta hil aurretik biktimek askatasuna gabetzea ere sufritu zutela ondorioztatu zen.

Mexikoko Estatuaren jarduera eta ikerketa ezaren ondorioz, familiek kasua nazioarteko justiziaren esku jartzea erabaki zuten. Hala, 2002ko martxoaren 6an, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak familien eskaera jaso zuen. Eskaera Mexikoko Estatuak 3 emakumeen desagertze eta hilketen ustezko nazioarteko erantzukizunean oinarritu zen. Batzordeak kasua aztertu eta Txostena (*Informe de fondo*) onartu zuen 2007ko martxoaren 9an. Txosten honek Mexikoko Estatuak biktimen eta haien familien

⁴⁸ Aguirre, Olivia, (2014). “Estado mexicano: lejos de cumplir íntegramente la sentencia de la CIDH en el caso González y otras (Campo Algodonero)”, *Via Iuris*, 17, 169-182. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6610283>.

⁴⁹ Corte Interamericana de Derechos Humanos (2022). “Technical Data: González y otras (Campo Algodonero) Vs. México”. Eskuragarri hemen: https://www.corteidh.or.cr/cf/Jurisprudencia2/ficha_tecnica.cfm?nId_Ficha=347&lang=e (kontsulta eguna: 23/03/2022).

giza eskubideak urratu zituela ondorioztatu zuen, eta zenbait gomendio ematen zizkion Estatuari:

“El Estado de México es responsable de violaciones de los derechos a la vida, a las garantías judiciales y a la protección judicial, consagrados, respectivamente, en los artículos 4, 8.1 y 25 de la Convención Americana, todos ellos en conexión con la obligación que le imponen al Estado los artículos 1.1 y 2 de dicho tratado”⁵⁰.

Azkenik, 2007ko azaroaren 4an, Batzordeak Campo Algodonero kasua Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren menpe jartzea erabaki zuen, berak ezarritako gomendioak Mexikoko Estatuaren ez betetzearen ondorioz. Izan ere, Batzordeak Gorteari Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarreko 4. artikuluan (bizitzeko eskubidea), 5. artikuluan (osotasun pertsonalerako eskubidea), 8. artikuluan (berme judizialak), 19. artikuluan (haurren eskubideak) eta 25. artikuluan (babes judiziala) ezarritako eskubideak urratzeagatik Estatu erantzule jotzea eskatu zion. Artikulu horiek guztiak Konbentzioko 1.1 artikulua (Eskubideak errespetatzeko betebeharra) eta 2. artikuluekin (Eskubidea ez betetzeari buruzkoa) lotzen ditu. Gainera, Belem do Pará Konbentzioko 7. artikulua (Eskubideak Hartzeko Eskubidea) ezartzen dituen betebeharrekin ere lotura egiten zuen Batzordeak ⁵¹.

Batzordeak aurkeztutako eskaerez gain, biktimen ordezkariak⁵² eskatu zuten biktimen kopurua hamaika emakumera zabaltzea, bai eta Gorteak hiru pertsona gehiagoren ustezko atxiloketa arbitrarioari, torturari eta urraketari buruz iritzia ematea. Hala ere, Gorteak ez zuen eskaera hau onartu.

Prozesuan zehar, Mexikok nazioarteko erantzukizunaren aitorten partziala egin zuen. Izan ere, Estatu honek ikerketen “lehen etapa”⁵³, izenekoan 2001 eta 2003 bitartean, irregulartasunak egon zirela aitortu zuen. Gainera, irregulartasun horiek biktimen

⁵⁰ Comisión Interamericana de Derechos Humanos, Informe No. 28/07, Caso Campo Algodonero, 127° Período Ordinario de Sesiones. Dokumentua, 2007ko martxoaren 9a.

⁵¹ Corte Interamericana de los Derechos Humanos, González y otras vs. México (Caso Campo Algodonero), 2009ko azaroaren 16a, 3. paragrafoa.

⁵² Ordezkariak hurrengok izan ziren: Asociación Nacional de Abogados Democráticos A.C.; Comité de América Latina y el Caribe para la Defensa de los Derechos de la Mujer; Red Ciudadana de No Violencia y por la Dignidad Humana; Centro para el Desarrollo Integral de la Mujer A.C.

⁵³ Mexikoko Estatuak bi etapa ezberdin bereizten ditu Campo Algodonero Kasuan. Lehenengo etapari (2001 urtetik 2003 urtera), Estatuak irregulartasunak onartzen ditu ikerketan. Hala ere, 2003tik aurrera behar bezala jokatu zuela adierazi zuen.

familiengan kalte handia eragin zutela onartu zuten. Hala ere, biktimen eta familien bitzita eta osotasun fisiko nahiz moraleko eskubidea, askatasun pertsonalaren eskubidea eta diskriminazioa ez jasateko betebeharra ez betetzeagatik ez zuten nazioarteko erantzukizunik onartu. Bestalde, 2003tik aurrera egindako ikerketetan izandako ez-egite eta irregulartasunengatik ere ez zuten inolako erantzukizunik aitortu⁵⁴.

Gorteak, ordea, egitate frogatutzat hartu zituen Mexikoko Estatuak ikerketetan egindako hurrengo irregulartasunak eta akatsak: ikerketen hasierako atzerapena, inguruabarren zehaztasunik eza gorpuen aurkipenean (agintariak egindako krimenaren tokiaren ikuskatze eta zaintze prozesuan zorrotasun gutxi); frogak behar bezala ez erabiltzea; zaintza-katea babesteko eraginkorrak ez diren metodoak erabiltzea; autopsia osatugabeak eta gorpuak modu arbitrarioan identifikatzea; froga genetikoak gaizki aplikatzea; errudunak fabrikatzea eta, ondorioz, beste ikerketa-ildo batzuen jarraipenik ez egitea; foru federalaren ikerketen eta udalerriaren foruaren ikerketen arteko loturarik eza, ikerketen zatiketa seguruena lotuta zeuden kasuetan; eta funtzionarioek diskriminazio-jarrerekin jardutea biktimei errudun hartuz eta arazoaren garrantzia txikiagotzen⁵⁵.

4.2 Epaia

"Campo Algodonero" kasua aurrekari paradigmaticoa da Giza Eskubideen Sistema Interamerikarraren jurisprudentzian. Izan ere, hori izan zen Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak eta Batzarrak egiturazko emakumeen aurkako indarkeria aztertzen zuen lehen aldiz. Gorteak hiru biktimen hilketak genero arrazoiengatik eman zirela adierazi zuen eta hilketak Ciudad Juárez-en ematen den emakumeen aurkako indarkeriaren ondorio direla ezarri zuen. Gainera, Estatuak diskriminazioaren eta indarkeriaren eraginpean dauden kolektiboak babesteko betebeharrak dituela berretsi zuen⁵⁶. Jarraian aztertzen dut epai funtsezko honen eduki oparoa.

⁵⁴ Camacho, Santiago (2011). "El campo algodonero ante la Corte Interamericana de Derechos Humanos", *Anuario Mexicano de Derecho Internacional*, 11, 525-526. Eskuragarri hemen: <http://www.scielo.org.mx/pdf/amdi/v11/v11a18.pdf>.

⁵⁵ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, González y otras (Campo Algodonero) vs. México epaiaren 306., 311., 316., 324., 331., 346., 352., 359., 369., 378. paragrafoak.

⁵⁶ Abramovich, Victor (2010). "Responsabilidad estatal por violencia de género: comentarios sobre el caso "Campo Algodonero" en la Corte Interamericana de Derechos Humanos", *Anuario de Derechos Humanos*, 6, 167-168.

4.2.1 Aplikatutako legeria

Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 62.3 artikulua araberan, Gorte Interamerikarrak kasu hau ezagutzeko eskumena du. Izan ere artikulua honek ezartzen duen moduan: *“La Corte tiene competencia para conocer de cualquier caso relativo a la interpretación y aplicación de las disposiciones de esta Convención que le sea sometido, siempre que los Estados Partes en el caso hayan reconocido o reconozcan dicha competencia”*. Alde batetik, Mexiko Amerikako Konbentzioko kide baita 1981eko martxoaren 24az geroztik. Bestetik, 1998ko abenduaren 16an Auzitegiaren auzibidezko eskumena espresuki onartu zuelako. Era berean, Estatuak 1998ko azaroaren 12an Belém do Pará Konbentzioa berretsi zuen⁵⁷.

Mexikok nahiz eta Belém do Pará Konbentzioa berretsi, ez zuen onartzen konbentzio honek behartu egiten zuenik, ezta horrek ezartzen zizkion betebeharrak ere. Eztabaida horren aurrean, Gorteak azterketa zehatza egin zuen⁵⁸, eta Konbentzioaren artikulua jakin batzuk aplikatzeko eskumenari buruz iritzia eman zuen epaian. Horretarako, 1969ko Vienako Konbentzioak ezarritako nazioarteko tratatuak interpretatzeko zenbait irizpide jarraitu zituen⁵⁹. Lehengo eta behin, Gorteak Belém do Pará Konbentzioaren 7. artikulua aplikatzearen alde agertu zen. Ordea, eta kontuan izanda Konbentzioaren 12. artikulua ezartzen dituela salaketak edo kexa bakarrik aurkeztu daitezkeela 7. artikulua betebeharren urraketengatik, Konbentzioaren 8. eta 9. artikulua aplikatzearen kontra agertu zen⁶⁰.

7. artikulua araberan, Estatuak kontrako indarkeria prebenitzeko, zehatzeko eta desagerrarazteko politikak hartu behar dituzte, baliabide egokiak erabiliz eta atzerapenik gabe. Gorteak 7. artikuluko b eta c puntuen urraketengatik kondenatu zuen Mexiko zehatz mehatz. Atal horiek zera esaten dute:

“b. actuar con la debida diligencia para prevenir, investigar y sancionar la violencia contra la mujer;

⁵⁷ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, González y otras (Campo Algodonero) vs. México epaiaren xx paragrafoa.

⁵⁸ Medina, Rosas. *Op cit.* 52-53.

⁵⁹ Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmenaren 31. artikulua, 1969ko maiatzaren 23^a.

⁶⁰ Batzordeak eta ordezkariak Gortearen eskumena alegatu zuten 7. artikuluari dagokionez. Gainera, ordezkariak alegatu zuten Gorteak eskumena duela Hitzarmen horretako 9. artikuluko urraketan berri izateko eta 8. artikulua aplikatzeko. 31. paragrafoa, GEGI González y otras (Campo Algodonero) vs. México. *Op cit.*

c. incluir en su legislación interna normas penales, civiles y administrativas, así como las de otra naturaleza que sean necesarias para prevenir, sancionar y erradicar la violencia contra la mujer y adoptar las medidas administrativas apropiadas que sean del caso”.

Aplikaturako beste Konbentzioa Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena izan zen. Estatuaren erantzukizuna Hitzarmenaren 1.1 artikulua (berme betebeharrak orokorra) eta 2 artikulua (barne xedapenak hartzeko betebeharrak) betez ezartzen da. Aipaturako artikulua Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmenean ezarritako hurrengo eskubideei dagokionez aplikatzen dira: 4.1 (bizitza eskubidea), 5.1 (osotasun fisiko eta moraleko eskubidea), 5.2 (torturak jasateko debekua), 7.1 (askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea). Beraz, aurreko artikuluek (1.1 2. artikulua) giza eskubideen urraketa horientatik Estatuak duen erantzukizuna ezartzeko ahalbidetzen dute, Estatuak ez dituen zuzenean egiten kasuan ematen diren urraketak; hau da, Estatuak edo bere funtzionarioak ez zituzten hiru neska hil edo torturatu, baina giza eskubideen urraketa horiek onartu zituen.

Konbentzio eta Tratatu horiek pertsona guztien giza eskubideak definitzen dituzte. Aldi berean, Estatuak errespetatu, babestu eta bermatu egin behar dituzte giza eskubide horiek eta, beraz, zenbait betebeharrak dituzte. Ikuspegi horretatik, estatuak neurriak hartu behar dituzte beren funtzionarioek eta erakundeek, eta baita partikularrek eta gainerako eragileek ere, eskubideen urraketarik egin ez dezaten edo urratze horiek zigorrik gabe gera ez daitezten. Beraz, Auzitegiari dagokio aztertzea Estatuak behar bezala prebenitu zituen hiru biktimek jasandako desagertzeak eta heriotzak, eta ea ikertu zituen behar bezalako eginbideekin.

4.2.2 Estatuaren erantzukizuna

Gorteak erantzukizun zuzena ezartzeko aukera alde batera utzi zuen, ez baitzuen Estatuako agenteen parte hartzearen frogak nahikorik aurkitu.⁶¹ Giza Eskubideen Hitzarmen Amerikarraren 1.1 artikulua araberak, Estatuak bertan aipatzen diren giza eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko betebeharrak dute. Hala ere, honek ez du esan nahi

⁶¹ Erabaki hau arrazoitzeko bere jurisprudentzia aipatu zuen; hala nola 123. paragrafoan, *Masacre de Pueblo Bello c. Colombia* epaia, 2006ko urtarrilaren 31a, 140. paragrafoa; 155. Paragrafoan. *Comunidad Indígena Sawhoyamaya c. Paraguay* epaia, 2006ko martxoaren 29a, 146. paragrafoa; eta 78. paragrafoan. *Valle Jaramillo y otros c. Colombia* epaia, 2008ko azaroaren 27a, 192. paragrafoa.

partikularren edozein egintza edo gertaeraren aurrean Estatu erantzukizun mugagaberik duenik. Hori dela eta, Estatuari ezin zaio nazioarteko erantzukizuna ezarri partikularren giza eskubide urraketa ororengatik. Orduan, zein nolako erantzukizuna izan dezakete Estatuak giza eskubideen urraketak prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko neurririk ez hartzeagatik?

Auzi honetan Mexikoren erantzukizuna zein den zehazteko, Gorteak berme-betebeharra aztertu zuen (*deber general de garantía*)⁶², baina muga batzuk kontuan hartuta. Izan ere, kasu honetan, erantzukizuna biktimaren eskubideak kaltetzeko arrisku erreal eta berehalakoa zein den jakitearen arabera baldintzatuta dago, bai eta arrisku hori prebenitu edo saihesteko aukeren arabera ere⁶³. Estatuaren betebehar hau lau eginkizun hartzen ditu barne⁶⁴, hain zuzen, prebentzio betebeharra, ikertze-betebeharra, inolako santziorik ez aplikatzea eta bereizkeriaz ez jokatzeko. Banan-banan aztertuko dut jarraian.

Lehenik eta behin, prebentzio betebeharra betetzen den edo ez aztertzeko, funtsezkoa da testuingurua kontuan hartzea, erabakigarria izango baita Estatuaren ekintzak edo ez-egiteak epaitzeko. Beraz, testuinguru politikoa, soziala eta ekonomikoa kontuan hartu behar dugu.⁶⁵ Gainera, Gorteak berak, prebentzio neurriak hartzeko pertsona jakin edo pertsona talde jakin batentzako berehalako eta benetako arrisku egon behar dela adierazten du. Horrez gain, Estatuak arrisku horren berri izan behar du.

Gorteak egiaztatu zuen Estatuak bazekiela (hiru biktimak desagertzeko salaketak baino askoz lehenago) talde zehatz, diskriminatu eta zaurgarri batentzako arrisku-egoera zegoela Ciudad Juárez hirian⁶⁶. Talde hau baliabide gutxirekin edo beren lan-jardueragatik estigmatizatutako emakume gazteez osatuta zegoen.⁶⁷ Mexikoko Estatuak

⁶² Berme-betebeharra Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 1.1 artikuluan oinarritzen da. Artikulu horren bidez, Konbentzioan jasotako eskubideen babesa bermatzeko beharrezko neurriak ez hartzeagatik, Estatu baten nazioarteko erantzukizuna ezartzen saiatuko da.

⁶³ Jiménez, Francisco (2011). “La responsabilidad directa por omisión del Estado más allá de la diligencia debida. Reflexiones a raíz de los crímenes ‘feminicidas’ de Ciudad Juárez”, *Revista Española de Derecho Internacional*, 63, 45-49.

⁶⁴ Ballesteros, Vanessa (2013). La atribución al Estado del comportamiento de los particulares en el ámbito de la responsabilidad internacional. España: Universidad de Castilla- La Mancha. 583-585.

⁶⁵ Consejo de Derechos Humanos de la ONU, Informe de la Relatora Especial sobre la violencia contra la mujer, sus causas y sus consecuencias, Rashida Manjoo. A/HRC/20/16/Add.3 Dokumentua 2012ko maiatzaren 14a, 18. paragrafoa. Eskuragarri hemen: <https://www.refworld.org.es/docid/500810b72.html>.

⁶⁶ Gorteak epaian sakontasunez aztertzen du Ciudad Juarezeko emakumeek pairatzen duten indarkeria. Izan ere, egiturazko genero-indarkeria eta haren arrazoi nagusiak aztertzen ditu, eta beraz, arlo honetan aurrekari garrantzitsuenetako bat da.

⁶⁷ Camacho, Santiago (2011). *Op cit.* 537-538.

berak hirian diskriminazio eta emakumearen aurkako egiturazko indarkeria zegoela onartu zuen.⁶⁸ Hala ere, Gorteak argudiatu zuen ezin zela frogatu Estatuak kasu honen biktimentzat benetako eta berehalako arrisku baten berri zuenik. Hain zuen: *“a pesar de que éste tenía conocimiento de una situación de riesgo para las mujeres en Ciudad Juárez, no ha sido establecido que tenía conocimiento de un riesgo real e inmediato para las víctimas de este caso.”*⁶⁹.

Honen aurrean, Gorteak “bi momentuen teoria” garatu zuen. Honen arabera, prebentzio-betebeharra bi une nagusitan aztertu behar da. Lehenengoa biktimak desagertu aurrekoa da; bigarrena, berriz, gorpuak bizitzarik gabe aurkitu aurrekoa; hau da desagertzea eta gero hasten dena. Bigarren momentu hori ere aztertua izan zen eta, izan ere, erantzukizuna zehazteko beharrezkoa bihurtu zen, auzian Estatuak momentu horretan arriskuaren berri zuela frogatu baitzen:

*“En el periodo entre las denuncias y el hallazgo de los cuerpos de las víctimas, el Estado se limitó a realizar formalidades y a tomar declaraciones que, aunque importantes, perdieron su valor una vez éstas no repercutieron en acciones de búsqueda específicas. Además, las actitudes y declaraciones de los funcionarios hacia los familiares de las víctimas que daban a entender que las denuncias de desaparición no debían ser tratadas con urgencia e inmediatez llevan al Tribunal razonablemente a concluir que hubo demoras injustificadas luego de las presentaciones de las denuncias de desaparición. Todo esto demuestra que el Estado no actuó con la debida diligencia requerida para prevenir adecuadamente las muertes y agresiones sufridas por las víctimas y que no actuó como razonablemente era de esperarse de acuerdo a las circunstancias del caso para poner fin a su privación de libertad”.*⁷⁰

Beraz, bigarren momentu horretan Estatuak berehala hiltzeko arriskuaren berri zuen, besteak beste, senideek salaketa aurkeztu zutelako. Hala ere, Estatuak ez zuen

⁶⁸ “(...) el Estado admitió, en términos generales, los hechos de contexto relativos a la violencia contra las mujeres en Ciudad Juárez, particularmente los homicidios que se han registrado desde el inicio de los años 90, así como los hechos referentes a lo que el Estado denomina “primera etapa” de las investigaciones de los crímenes perpetrados en contra de las tres víctimas, que abarca el período 2001 a 2003.”. González y otras (Campo Algodonero) vs. México, epaiaren 27. paragrafoa.

⁶⁹ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, González y otras (Campo Algodonero) vs. México. 286 paragrafoa.

⁷⁰ *Ibidem*, 284. paragrafoa.

arrazoizko neurririk hartu biktimen bizitza babesteko eta hilketei aurrea hartzeko (adibidez, ez ziren berehalako bilaketa-agindurik eman). Gainera, desagertze horien aurrean funtzionarioek arazoaren larritasuna txikitu eta biktimei errua eragotzi zieten. Hori dela eta, desagertzeak salatu ondoren agintariek bi arau-hauste egin zituzten. Alde batetik, ez zuten biktima behar bezala bilatu. Eta, beste aldetik, biktima haren desagertzeagatik erruduntzat hartu zuten, eta, beraz, haien ustez, biktimek ez zuten aurkitzeko eta babesteko estatu-ekintzarik merezi.⁷¹.

Hori dela eta, Gorteak Mexiko ez zuela garaiz jokatu desagertze-salaketen ondorengo lehen ordu eta egunetan (ordu baliotsuenak galduz) ezarri zuen. Beraz, epaian bere prebentzio-eginbearra ez betetzeagatik erruduntzat jo zuen. Gainera, Estatuak testuingurua ezagutzen zuenez, berme-betebearra ez betetzea bereziki serioa zela adierazi zuen (emakumeak zaurgarritasun-egoera berezi batean jartzen zutelako). Gainera, betebeharraren betetzea Belém do Pará Konbentzioaren 7.b) artikulua indartzen zuela adierazi zuen⁷². Bestalde, Estatuak ez zuen frogatu berehalako erantzun eraginkorra emateko desagertze-salaketen aurrean eta emakumearen aurkako indarkeria behar bezala prebenitzeko araurik hartu zituenik⁷³.

Bigarrenik, auzian, Gorteak beste eginkizun baten betetzea zalantzan jarri zuen, hain zuzen, Estatuak duten ikertze-betebearra. Hala, azaldu zuen bizitzeko, osotasun pertsonalerako eta askatasun pertsonalerako eskubideak bermatzeko betebeharraren orokorretik eratortzen dela eskubide horien urraketan kasuak ikertzeko betebearra⁷⁴. Goian aipatu dugun moduan, Estatuak berak onartu zuen ikerketen “lehen etapan”, 2001 eta 2003 bitartean, irregulartasunak aurkeztu zirela. Gorteak horiek onartu zituen eta ezarri zuen bigarren etapan irregulartasun hauek ez zirela konpondu. Gainera, irregulartasun hauek eskubideak bi modutan kaltetzen dituzte.

⁷¹ Volgelfanger, Alan (2016). “El deber de prevención en casos de violencia de género: desde Campo Algodonero hasta Veliz Franco”, *Eunomía: Revista en Cultura de la Legalidad*, 9, 58-59.

⁷² González y otras (Campo Algodonero) vs. México epaiaren 284. paragrafoa.

⁷³ Barne-legerian zigor-arauak, arau zibilak eta administratiboak ezartzeko betebearra urraketa hauek behar bezala prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko: Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarraren 2. artikulua eta Belém do Pará Konbentzioaren 7.c artikulua.

⁷⁴ Ikerketa falta nabarmentzen zen zenbait ekintzetan, aipatuak izan direnak egitate frogatuetan, hala nola ikerketen hasierako atzerapena; inguruabarren zehaztasunik eza gorpuen aurkipenean (agintariek egindako krimenaren tokiaren ikuskatze eta zaintze prozesuan zorrotasun gutxi); frogak behar bezala ez erabiltzea; zaintza-katea babesteko eraginkorrak ez diren metodoak erabiltzea; eta autopsia osatugabeak eta gorpuk modu arbitrarioan identifikatzea.

Alde batetik, gorpuak behar bezala ez identifikatzeak eta ez ikertzeak, benetako babes judizialerako eskubidea jasotzea oztopatzen du (Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarraren 8.1 eta 25.1 artikulua). Oztopo horiek hain dira larriak ezen babesgabetasuna sortzen dute familiengan. Gortearen arabera, emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean eraginkortasun judizialik ez izateak, zigorgabetasun-giroa sortzen du. Bada, indarkeria-ekintzak errepikatzea errazten eta sustatzen laguntzen du, eta gizarteari mezu argia bidaltzen dio “emakumeen aurkako indarkeria toleratu eta onar daiteke”⁷⁵. Beraz ez ikertzeak berekin ekartzen du goian zerrendatutako Estatuaren hirugarren eginkizuna, hain zuzen, inolako santziorik ez aplikatzea, ez baitira errudunak bilatzen, ezta epaitzen⁷⁶. Lehen esan dugun bezala, Belém do Pará Konbentzioaren 7.b) artikulua betebeharrak hau aipatzen du. Horrexegatik, Gorteak ezarri zuen Mexiko ez zuela behar bezalako arretaz jardun.

Beste aldetik, ikertzean eman ziren irregulartasunek familien osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea ere kaltetu zuten. Eskubide hori urratutzat hartzen da biktimen zuzeneko senideei dagokienez, lokarri afektiboen ondorioz kaltetuta ikusi zutelako⁷⁷. Gainera, krimenak argitu nahian senide askok jazarpen larriak sufritu zituzten; besteak beste, mehatxuak, tratatu txarrak, larderia, disuasio-modu sistematikoan, bai eta zuzeneko indarkeria ere⁷⁸. Hala ere, horietan guztietan ez zen Estatuaren erantzukizuna modu orokor batean onartu, eta, horregatik bakarrik ezarri zen frogak aurkeztutako kasuetan. Beraz, honen ondorioz, biktimen zenbait senide biktima bihurtu ziren bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, ez ikertzeagatik haien sufrimendua denboran zehar mantendu zelako (prozesua eta gorpuen aurkikuntza luzatu zelako eta ez zelako justizia egin); eta, bestetik, jazarpena edo jarrera axolagabeen biktima izan zirelako

⁷⁵ Medina, Rosas. *Op cit.* 58-59.

⁷⁶ La Corte concluye que desde 1993 existe en Ciudad Juárez un aumento de homicidios de mujeres, habiendo por lo menos 264 víctimas hasta el año 2001 y 379 hasta el 2005 (...) En este sentido, cabe destacar las respuestas ineficientes y las actitudes indiferentes documentadas en cuanto a la investigación de dichos crímenes, que parecen haber permitido que se haya perpetuado la violencia contra la mujer en Ciudad Juárez. La Corte constata que hasta el año 2005 la mayoría de los crímenes seguían sin ser esclarecidos, siendo los homicidios que presentan características de violencia sexual los que presentan mayores niveles de impunidad”. González y otras (Campo Algodonero) vs. México epaiaren 164. paragrafoa.

⁷⁷ Medina, Rosas. *Op cit.* 64-65.

⁷⁸ González y otras (Campo Algodonero) vs. México, epaiaren 425 eta 435 paragrafoak.

Eta laugarrenik, Gorteak Estatuak bereizkeriaz jokatzegatik izan dezakeen erantzukizuna aztertu zuen. CEDAW-k horrela definitzen du emakumeen kontrako bereizkeria:

“(...) toda distinción, exclusión a restricción basada en el sexo que tenga por objeto o por resultado menoscabar o anular el reconocimiento, goce o ejercicio por la mujer, independientemente de su estado civil, sobre la base de la igualdad del hombre y la mujer, de los derechos humanos y las libertades fundamentales en las esferas política, económica, social, cultural y civil o en cualquier otra esfera”⁷⁹.

Aipatutako kasuaren egitate frogatuak kontuan izanda (funtzionarioen jarrera pasiboa emakumeen desagertze-salaketen aurrean, bai eta agintarien aurreiritziak biktimak erruduntzat hartuz), Gorteak babes-judiziala jasotzeko bereizkeria eragin zuela ezarri zuen. Esan dugun bezala, justizia ez lortzeak inpunitatea eragiten du eta honek gizartean ondorioak eragiten ditu. Batetik, fenomenoak betikotzen eta gizartean onartzen laguntzen du, eta, bestetik emakumeengan justiziarekiko mesfidantza iraunkorra sortzen da.

Horrez gain, Gorteak emakumeen aurkako indarkeriaren eragile eta, aldi berean, ondorioetako bat estereotipoak sortzea eta erabiltzea dela adierazten du. Nazio Batuetako Erakundearen arabera, genero-estereotipoak genero ezaugarrien eta emakume eta gizonen desberdintasunen eta rolen orokortze sinplistik dira.⁸⁰ Mexikok berak onartu zuen urte batzuk lehenago, CEDAW-ren aurrean, Ciudad Juárezeko emakumeen hilketak emakumearen aurkako diskriminazio-kulturaren ondorio zirela, haien gutxiagotasunaren kontzepzio oker batean oinarrituta⁸¹. Estatuak bere agintarien politika eta praktiketan islatzen ditu estereotipo horiek, bereziki polizia judizialaren arrazoiketan eta hizkuntzan eta horiek diskriminazioaren isla dira.

Horregatik guztiagatik, Gorteak uste izan zuen kasu honetan emakumearen aurkako indarkeria diskriminazio-modu bat izan zela, eta beraz, Estatuak urratu egin zuela Giza

⁷⁹ Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 1. artikulua, 1997ko abenduaren 18a. Eskuragarri hemen: <https://onx.la/5c0d7>. Gorteak berak erabili zuen bereizkeriaren definizio hau bere sententzian.

⁸⁰ Nazio Batuetako Erakundea. Emakumeak, Trebakuntza-Zentroa (2011-2017). *Gender Mainstreaming. Concepts and definitions*. Genero-Estereotipoak. Eskuragarri hemen: <https://trainingcentre.unwomen.org/mod/glossary/showentry.php?eid=201>.

⁸¹ Comité para la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación contra la Mujer, Informe de México producido por el Comité CEDAW (...) CEDAW/C/2005/OP.8/MEXICO. 44.

Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarraren 1.1 artikuluan jasotako diskriminaziorik ezaren betebeharra.

4.2.3 Neurriak eta kondena

Azaldutako guztia kontuan hartuta, azkenean Gorteak ondorioztatu zuen 1993tik aurrera Ciudad Juárez-en emakumeen hilketak ugaritu egin zirela. Gainera, hilketari horietako askotan indarkeria maila (indarkeria sexuala barne) handia izan zela baieztatu zuen eta hilketari horiek emakumeen aurkako diskriminazio-kulturaren ondorio zirela. Gainera, botere publikoengandik erantzun ez-eraginkorrak eta jarrera axolagabeak eman zirela ezarri zuen eta horiek Ciudad Juárez-en emakumeen aurkako indarkeria betikotzera lagundu dutela. Gainera, 2005. urtera arte krimen gehienak argitu gabe zeudela oraindik frogatuta gelditu zen, eta sexu-indarkeriarekin lotutako hilketak zigorgabetasun-maila handiena zutela⁸². Horrek guztiak, emakumeen kontrako indarkerian inpunitatea gailentzea eragin du. Hortaz, Gorteak, alde batetik, emakumeen aurkako indarkeriaren egoera deskribatzen duten datuak aztertzen ditu, eta, bestetik, zigorgabetasun-egoera aurkezten du.

Beraz, azkenean Gorteak onartu egin zuen Mexikoko Estatuak egindako nazioarteko erantzukizunaren onarpen partziala. Gainera, adierazi zuen bizitzarako (4.1. artikulua), osotasun pertsonalerako (5.1. art.) eta askatasun pertsonalerako (7. art.) eskubideak urratu zirela, Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Amerikarrean ezarritako berme-betebehar, bai eta Belém do Pará Konbentzioaren 7.b) eta 7.c) artikuluetan jasotako betebeharrei dagokionez. Era berean, epaimahaiak ikertzeko betebeharra ez zela bete (horrekin batera, bizitzeko eskubideak, osotasun pertsonala eta askatasun pertsonala bermatuko dituen betebeharra) adierazi zuen. Bestalde, justizia eta babes judizialerako eskubideak urratu zirela, bai eta bereizkeriarik ez egiteko betebeharra ere ezarri zuen (bizitzeko eskubideak, osotasun pertsonala eta askatasun pertsonala bermatzeko betebeharrari dagokionez)⁸³.

⁸² Ginés, Emilio. *Op cit.* 142.

⁸³ 1. paragrafoa. Resolución de la Corte Interamericana de los derechos humanos del caso González y otras (Campo Algodonero) vs. México supervisión del cumplimiento de la sentencia. Dokumentua, 2013ko maiatzaren 21a. Eskuragarri hemen: https://www.corteidh.or.cr/docs/supervisiones/gonzalez_21_05_13.pdf.

Nazioarteko betebeharraren urraketa orori konponketa ezarri behar zaio. Horren ondorioz, Mexikoko Estatuak duen nazioarteko erantzukizuna aitortzeaz gain, neurrien eta kondenaren helburua Ciudad Juárez hiriko emakumeek jasaten duten egiturazko indarkeria aldatzeko neurriak ezartzea da. Beraz, neurriek eragin konpontzaile eta zuzentzaile izan behar zuten⁸⁴.

Ale batetik, neurri zuzentzaileei dagokionez, Estatu baten erantzukizuna adierazten duen epaia bada –biktimen sufritutako egoeraren eta Estatuak duen erantzukizunaren aldarrikatze publiko ekartzen baitu⁸⁵–, kalteak konpontzeko neurri bat ere bada⁸⁶.

Estatuak eraginkortasunez gidatu beharko du abian den zigor prozesu oro. Gazteen desagertzeen aurrean, tratatu txarren eta bizitza-gabeziaren arduradunak identifikatzen, prozesatzen eta, hala badagokio, zigortzen saiatu beharko dira. Horretarako ikertzeko dauden oztopo guztiak kendu behar dira, ikerketak genero-ikuspegi bat izan behar du, ikerketa prozeduran eta prozesu judizialean parte hartzen duten organoek beharrezko giza-baliabide eta baliabide materialak izan behar dituzte eta prozesuen emaitzak zabaldu behar dira haien argitalpen publikoaren bidez⁸⁷.

Estatuak irregulartasunak leporatu zaizkien funtzionarioak ikertu beharko ditu. Prozesu egoki baten ondoren, administrazio-zigorra edo zigor penalak ezarri⁸⁸. Bestalde, biktimen senideen erasoan edo errepresalien erantzuleak ere ikertu eta zigortu beharko dituzte⁸⁹.

Estatuak sei hilabeteko epean Federazioaren Aldizkari Ofizialean eta Estatu mailako aldizkari ofizialean argitaratu beharko du epaia. Horrez gain, epe berean, epai hau osorik argitaratu beharko da Estatu orrialde elektronikoko ofizial batean.⁹⁰ Gainera,

⁸⁴ Elgul, Noemi (2014). “Una visión trialista del fallo de la CIDH sobre violencia de género. Análisis del fallo ‘CIDH. Caso: “González y otras (“campo algodoner”) vs. México’. Sentencia de 16 de noviembre de 2009, en base a la teoría, el mundo jurídico y sus horizontes, de Werner Goldschmidt”, *Enfoques: revista de la Universidad Adventista del Plata*, 26. 2-3.

⁸⁵ Medina, Rosas. *Op cit.* 67.

⁸⁶ Puntos Resolutivos, 11. paragrafoa. GEGI, González y otras (Campo Algodonero) vs. México. *Op cit.*

⁸⁷ *Ibidem*, 12. paragrafoa.

⁸⁸ *Ibidem*, 13. paragrafoa.

⁸⁹ *Ibidem*, 14. paragrafoa.

⁹⁰ *Ibidem*, 15. eta 16. paragrafoak.

epai hau jakinarazi eta urtebeteko epean, nazioarteko kasu honetako gertakarien inguruan erantzukizuna aitortzeko ekitaldi publiko bat egin beharko da, hiru biktimen omenez⁹¹.

Estatuak emakumeen desagertzeekin, sexu-indarkeriarekin eta hilketekin zerikusia duten delitu guztiak ikertzeko erabiltzen dituen protokolo guztiak, nazioarteko desagertutako pertsonak bilatzeko estandarrekin bateratu beharko ditu⁹². Beti ere genero-ikuspegi batetatik⁹³.

Alba protokoloa⁹⁴ egokitu edo, bestelako protokolo berri bat sortu hurrengo irizpideak jarraitzen dituena: pertsona desagertuen ofizioz eta atzerapenik gabe bilaketak egitea; segurtasun eta polizia-indarkeria kidegoen artean lan koordinatua ezartzea; bilaketari eraginkortasuna galarazten dion egitatezko edo zuzenbideko edozein oztopo kentzea; behar diren giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, logistikoak eta zientifikoak esleitzea; desagertutako pertsonen buruzko datu-basea sortzea; eta bilaketei lehenetsia ematea arrazoizkoagoa den eremuetan (bilaketa-aukera edo -eremu batzuk nahierara baztertu gabe)⁹⁵. Etengabe eguneratu behar den orri elektronikoa bat sortu beharko da. Bertan, Chihuahua Estatuan 1993tik desagertu diren emakume guztien informazio pertsonala agertuko da⁹⁶. Horrez gain, Estatuaren datu-base bat sortu edo eguneratu behar da, honako datu hauekin: i) desagertutako emakumeei eta neskei buruz eskura dagoen informazio pertsonala; ii) desagertutako pertsona aurkitzeko behar den informazio pertsonala (batez ere informazio genetikoa, zelula-laginak, eta abar); iii) eta Chihuahua Estatuan erailduak izan diren eta identifikatu gabeko edozein emakume edo neskatoren informazio genetikoa eta zelula-laginak⁹⁷.

Estatuak jarraitu behar du giza eskubideetan eta generoan oinarritutako hezkuntza-programa eta -ikastaro iraunkorrak ezartzen. Hauek funtzionario-publikoei zuzendutako programak dira eta helburua emakumeen gizarte-rolari buruzko estereotipoak gainditzea da.⁹⁸ Horrez gain, Chihuahua Estatuko gizarteari zuzendutako hezkuntza programak sortu

⁹¹ *Ibidem*, 17. paragrafoa.

⁹² Hala nola *Protocolo de Estambul, el Manual sobre la Prevención e Investigación Efectiva de Ejecuciones Extrajudiciales, Arbitrarias y Sumarias de Naciones Unidas*.

⁹³ Puntos Resolutivos, 18. paragrafoa. GEGI, González y otras (Campo Algodonero) vs. México. *Op cit.*

⁹⁴ Mexikon desagertutako edo aurkitu gabeko emakumeen eta neskatoren bilatzeko erabiltzen den Protokoloa. 6. atalean horren inguruko azalpen sakonagoa emango da.

⁹⁵ Puntos Resolutivos, 19. paragrafoa. GEGI, González y otras (Campo Algodonero) vs. México. *Op cit.*

⁹⁶ *Ibidem*, 20. paragrafoa.

⁹⁷ *Ibidem*, 21. paragrafoa.

⁹⁸ *Ibidem*, 22. paragrafoa.

behar dira, diskriminazio eta emakumeen aurkako indarkeria bortitza gainditzeko asmoz⁹⁹.

Beste aldetik, biktimentzako konpontze neurriak dagokionei, Estatuak osasunerakunde espezializatuen bidez doako laguntza medikoa, psikologikoa edo psikiatrikoa eskaini behar die biktimen senideei¹⁰⁰. Gainera, Estatuak, epai hau jakinarazi eta urtebeteko epean, epai honetan kalte material eta ez-materialengatik kalte-ordain eta konpentsazioengatik finkatutako zenbatekoak ordaindu beharko ditu, eta kostuak eta gastuak itzuli¹⁰¹.

Gorteak berak epai hau osorik betetzen dela gainbegiratuko du. Horretarako Mexikoko Estatuak 3 urtean behin Txostenak aurkeztu beharko ditu hartutako neurriak eta aurrera pausuen berri ematen.

5. Epaiaren ondorioak

2013ko maiatzean, epaia betetzeari buruzko azken azterketa eman zen. Bertan Gorteak Mexikoko Estatuak 2009ko epaian ezarritako betebeharrak asko bete zituela adierazi zuen. Hala ere, beste batzuk egiteke geratu ziren, hala nola delituen erantzule materialak eta intelektualak modu eraginkorrean identifikatzea, prozesatzea eta, hala badagokio, zigortzea; irregulartasunak leporatu zaizkien funtzionarioak ikertzea; eta senideek sufritu duten jazarpenaren eragileak zigortzea¹⁰². Hitz gutxitan, zigorgabetasunarekin amaitzea.

Hala ere, esan dugun bezala, epaian emandako ebazpen asko guztiz bete egin ziren. Horrela, agintariek hartutako lehen neurrietako bat, epaia federazioaren aldizkari ofizialean argitaratzea izan zen¹⁰³. Horrez gain, Mexikoko egunkari garrantzitsuenetan

⁹⁹ *Ibidem*, 23. paragrafoa.

¹⁰⁰ *Ibidem*, 24. paragrafoa.

¹⁰¹ *Ibidem*, 25. paragrafoa.

¹⁰² “Respecto a los 14 resolutive de la Corte IDH en el caso González y otras (Campo Algodonero), están cumplidos del 15 al 18, 20, 22, 23 y 25; en proceso 12, 13, 14, 19, 21 y 24”. Convención sobre la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación contra la Mujer, Examen de los informes presentados por los Estados partes en virtud del artículo 18 de la Convención Noveno informe periódico que los Estados partes debían presentar en 2016, CEDAW/C/MEX/9, Dokumentua 2017ko otsailaren 2a. 39-40. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/8iQW8w>.

¹⁰³ Eskuragarri hemen: <https://www.gob.mx/sre/fr/acciones-y-programas/sentencias-de-la-corte-interamericana-de-derechos-humanos>.

argitaratu zen (*El Universal* eta *El diario*), epaia jendarterentzako asmoz¹⁰⁴. Bestalde, Estatuak orri elektronikoko bat sortu zuen, Chihuahua Estatuan 1993tik desagertu diren emakume guztien informazio pertsonalarekin. Gainera, web orrialde honetan¹⁰⁵ desagertzeen inguruko informazioa jasotzeko telefono zenbaki bat agertzen da¹⁰⁶. Bete egin zen beste neurrietako bat, gertakarien inguruan erantzukizuna aitortzeko ekitaldi publikoa burutzea izan zen¹⁰⁷. Gainera, epaiak agintzen zuen moduan, Ciudad Juárez-en biktimen oroitarri bat eraiki zen nesken gorpuak aurkitutako lekuan 2011an¹⁰⁸. Gazteen senideek ez ziren joan oroimenezko ekitaldira, amaitu gabe zegoela uste zutelako¹⁰⁹. Datu base genetikoaren sorrerari dagokionez, aurrerapauso handiak eman zirela ondorioztatzen du Gorteak. Hala ere, prozesua oraindik egiteke zegoela ezarri zuen¹¹⁰. Azkenik, Estatuak martxan jarri beharreko giza eskubideetan eta generoan oinarritutako hezkuntza-programa eta –ikastaroei dagokionez, Auzitegiak ezarri zuen Estatuak agintari ezberdinen bitartez, Federalak zein Estatukoak, jarduera ugari burutu dituela, eta beraz, agindu hau betetzat ematen du¹¹¹.

Jarraian, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren epaiaren ondorioz barne legerian zein nazioarteko jurisprudenzian emandako aurrerapausoak aztertzen ditugu sakontasunez.

5.1 Barne Legedian

Prozesu judiziala nazioarte mailara eramateak, bai eta Gorteak 2009ko epaian Mexiko erruduntzat hartzeak ere, Estatuaren barne-legedian zenbait aldaketa garrantzitsu bultzatu zituen. Campo Algodonero kasu ezagunak Mexikon emakumeen aurkako

¹⁰⁴ Resolución de la Corte Interamericana de los Derechos Humanos del caso González y otras (Campo Algodonero) vs. México supervisión del cumplimiento de la sentencia. *Op cit.* 55. *paragrafoa*

¹⁰⁵ Hurrengo estekan aurkitzen dugu aipatutako informazioa <http://fiscalia.chihuahua.gob.mx/mujeres-ninos-y-ninas-extraviados/>

¹⁰⁶ *Ibidem.* 99. *paragrafoa*.

¹⁰⁷ *Ibidem.* 66. *paragrafoa*

¹⁰⁸ *Ibidem.* 72. *paragrafoa*.

¹⁰⁹ 20minutos (2011). "Inauguran un memorial para las víctimas de Juárez sin el apoyo de sus familiares". *20minutos*. Azaraoaren 8a. Eskuragarri hemen: <https://www.20minutos.es/noticia/1212600/0/mexico-memorial/ciudad-juarez/victimas/> (Kontsulta eguna: 2022/05/02).

¹¹⁰ Resolución de la Corte Interamericana de los Derechos Humanos del caso González y otras (Campo Algodonero) vs. México supervisión del cumplimiento de la sentencia. *op cit.* 106. *paragrafoa*.

¹¹¹ *Ibidem.* 111. *paragrafoa*.

indarkeria zegoela ikusarazi zuen eta agintariak suspertu zituen indarkeria horri aurre egiteko¹¹².

Horrela, lehenengo pauso garrantzitsua prozesu judiziala hasita zegoela eman zen. Izan ere, 2007an “*Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia (LGAMVLV)*” onartu zen. Lege hau Diputatuen Ganbarako Batzorde Bereziak egindako feminizidioen ikerketa baten ondoren onartu zen. Batzorde horrek lege-aurreproiektu bat burutu zuen nazioarteko zenbait instantziek (CEDAW, Amerikako Estaturen Erakundea, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra eta erakunde zibil batzuk, besteak beste, Amnistia Internacional) emandako gomendioei jarraituz¹¹³.

Horrez gain, LGAMVLV-k ere Belém Do Pará Konbentzioak aipatzen dituen emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinak aintzat hartzen ditu: psikologikoa; fisikoa; ekonomikoa; instituzionala; ondare-indarkeria; sexu-indarkeria; familiakoa; laneko eta irakaskuntzako indarkeria; eta indarkeria feminizida.¹¹⁴ Halaber, legeak 22. artikuluan Genero Indarkeriaren Alerta (*Alerta de Violencia de Género*) sortu zuen. Artikulu honek, lurralde zehatz batean emakumeen aurkako indarkeria oso larria denean, horri aurre egiteko eta desagerrarazteko gobernu-ekintzen multzoari dagokio. Larrialdietarako prozedura hau lehenengo aldiz 2015eko uztailaren 31n ipini zen martxan Ecatepec, Nezahualcóyotl, Valle de Chalco, Toluca, Tlalnepantla, Naucalpan, Tultitlán, Cuautitlán Izcalli, Chimalhuacán, Ixtapaluca eta Chalco udalerrietan, feminizidio kasuen igoera kezkarriaren ondorioz. Mexikoko Estatuko agintariak hartutako neurriak hiru ardatzen inguruan antolatuko zirela azaldu zuten: genero-indarkeriaren prebentzioa, segurtasuna eta emakumeen justiziarako sarbidea.¹¹⁵

Lehenengo pauso hau nazioarteko eragileen presioaren ondorioa izan zen. Izan ere, Ciudad Juarezeko feminizidioak nazioarteko erakunde askoren jopuntuan zeuden, eta

¹¹² Aikin, Olga (2011). *Activismo social trasnacional; un análisis en torno a los feminicidios en Ciudad Juárez*. México: ITESO, El Colegio de la Frontera A. C. Universidad Autónoma de Ciudad Juárez. 23.

¹¹³ Christiansen, María (2014). “La violencia de la “Antiviolenencia”: una crítica a la legislación mexicana contra la violencia de género”, *Psicología desde el Caribe: revista del Programa de Psicología de la Universidad del Norte*, 3, 498- 499.

¹¹⁴ Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia, 6., 7., 10., 11., 12., 15., 16. eta 21. artikulua, Dokumentua 2007ko otsailaren 7a.

¹¹⁵ Montero, Carmen (2019). “A comparative study between the Spanish and Mexican laws regarding femicide”, *Boletín Mexicano de Derecho Comparado*, 154, 156-159.

horrek Mexikoko Estatuak neurriak harrarazi zizkion¹¹⁶. Gainera, esan dugun bezala, lege honek feminizidioa tipifikatzeko bidea zabaldu zuen, “indarkeria feminizida” delitutzat lehenengo aldiz ezarri baitzuen.

Gorteak Mexikoko Estatu erruduntzat hartu eta hiru urte geroago (2012ko uztailearen 12an) feminizidio kategoria juridiko autonomoa delitu gisa tipifikatu zen Mexikoko Zigor Kode Federalean, 325. artikuluan¹¹⁷. Feminizidio tipo penal hau oinarritzeko hilketatik abiatzen da. Beraz, genero arrazoiengatik heriotza izan dela frogatu ezean, homizidio tipo penala aplikatuko da.

Bestalde, Mexiko Estatu Federala da. Beraz, bertako Estatuak beren barne araubidean eskumen zabalak dituzte. Estatu bakoitzak bere Zigor Kodea du eta kode hauetan ere feminizidio tipo penal tipifikatuz joan da¹¹⁸. Lehenengo Guanajuato Estatu izan zen (2011ko maiatzean)¹¹⁹, eta, Chihuahua, aldiz, azkena (2017 urtera arte ez zen tipifikatu)¹²⁰. CEDAW-k tipifikazio honen alde egin zuen, eta horrela adierazi zuen Aldizkako Txostenetan¹²¹.

¹¹⁶ “La presión política internacional, misma que sirvió para catalizar una socialización sobre el papel, prescriptiva, que no había logrado permear de manera significativa la legislación, las instituciones o las prácticas cotidianas del sistema de justicia mexicano”: Aguirre, Olivia. *Op cit.* 175.

¹¹⁷ “Comete el delito de feminicidio quien priva de la vida a una mujer por razones de género. Se considera que existen razones de género cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias: I. La víctima presente signos de violencia sexual de cualquier tipo. II. A la víctima se le hayan infligido lesiones o mutilaciones infamantes o degradantes, previas o posteriores a la privación de la vida o actos de necrofilia. III. Existan antecedentes o datos de cualquier tipo de violencia en el ámbito familiar, laboral o escolar, del sujeto activo en contra de la víctima. IV. Haya existido entre el activo y la víctima una relación sentimental, afectiva o de confianza. V. Existan datos que establezcan que hubo amenazas relacionadas con el hecho delictuoso, acoso o lesiones del sujeto activo en contra de la víctima. VI. La víctima haya sido incomunicada, cualquiera que sea el tiempo previo a la privación de la vida. VII. El cuerpo de la víctima sea expuesto o exhibido en un lugar público. A quien cometa el delito de feminicidio se le impondrán de cuarenta a sesenta años de prisión y de quinientos a mil días multa. Además de las sanciones descritas en el presente artículo, el sujeto activo perderá todos los derechos con relación a la víctima, incluidos los de carácter sucesorio. En caso de que no se acredite el feminicidio, se aplicarán las reglas del homicidio. Al servidor público que retarde o entorpezca maliciosamente o por negligencia la procuración o administración de justicia se le impondrá pena de prisión de tres a ocho años y de quinientos a mil quinientos días multa, además será destituido e inhabilitado de tres a diez años para desempeñar otro empleo, cargo o comisión”.

¹¹⁸ Garza, Minerva. *Op cit.* 313-320.

¹¹⁹ Código Penal de Estado de Guanajuato, 153. a) artikulua.

¹²⁰ Berez, urte horretan “El Comité de Expertas del Mecanismo de Seguimiento MESECVI de la Convención Interamericana para la Prevención, Atención y Erradicación de la Violencia contra la Mujer, “Belém Do Pará”, 2 gomendio eman zizkion Mexikoko Estatuari: “1. Tipificar y armonizar legislativamente en todo el territorio nacional: entre otras el tipo penal de feminicidio”. Eta “2. Dar seguimiento a la implementación de la Ley General de Acceso de las Mujeres una Vida Libre de Violencia y demás normas en relación con la tipificación del feminicidio”.

¹²¹ “La adopción de las medidas suficientes para que los Códigos Penales locales tipifiquen el delito de feminicidio.” (...) Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, Informe de México producido por el Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, Observaciones finales

Hala ere, Estatu bakoitzak modu ezberdin batean jaso izan du feminizidioa bere kodean¹²². Horregatik, CEDAW-k feminizidio delituaren inguruan lege-harmonizazioa defendatu dute¹²³.

Edonola ere, emakumeen giza eskubideen babesean, Mexiko, Hego-Amerikako Estaturen artean, aitzindari bihurtu da feminizidio delitua tipifikatuz¹²⁴. Feminizidioaren tipifikazioa emakumeek sufritzen duten kalteberatasun egoera bereziak justifikatzen du.

Bestalde, Mexikok emakumeen desagertzeak ikertzeko barne-protokoloak aldatu eta berritu ditu. Izan ere, Campo Algodonero epaia Alba Protokoloa egokitzea behartuen zuen. Alba Protokoloa ikerketa-mekanismo bat dugu, eta agintari federalen, estatukoen eta udalekoen artean koordinazioa eta berehalako erantzuna lortzera bideratuta dago. 2012ko urtarrilean, Chihuahuako Estatuko Fiskaltza Nagusiak Delituaren Biktima diren Emakumei Laguntzeko Fiskaltza Espezializatu sortu zuen. Fiskaltza horrek Alba Protokoloa aktibatzeaz arduratzen da. Gainera, Protokoloak hedapen handia izan du komunikabideetan, herritarrek, oro har, mekanismoa nola erabili jakin dezaten. Mekanismo hori, 2013tik aurrera, Chihuahuako estatu osoan aplikatu behar da¹²⁵.

Gainera, genero indarkeriaren arloan eman diren beste lege erreforma garrantzitsuak honako hauek izan dira: *Ley General en materia de Desaparición Forzada de Personas, Desaparición Cometida por Particulares y del Sistema Nacional de Búsqueda de Personas* (2017an); *Ley de Planeación* (2018an erreformatua, Genero-berdintasuna sustatzen eta sexuagatiko diskriminazioa debekatzen duena); eta *Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia*-n eman diren erreformak, (bereiziki, feminizidioa delitu gisa tipifikatzen duen erabakiari dagokionez, 2016an).

Bestalde, 2013tik aurrera CEDAW-k adierazi du Mexikoko Estatuak kasuarekin lotura duten zigor-prozesuekin jarraitu duela, eta neurri egiaztagarriak ezarri zituela

sobre el noveno informe periódico de México, CEDAW/C/MEX/CO/9 Dokumentua 2018ko uztailaren 25a. 9. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/DmRm92>.

¹²² Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, Observaciones finales del Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, CEDAW/C/MEX/CO/7-8, Dokumentua, 2015eko abuztuaren 7a. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/jsw0i7>.

¹²³ *Ibidem*.

¹²⁴ Villarreal, Sara (2019). *Violencia de género en América Latina: La consolidación del feminicidio en Colombia*, Chile: Universidad Santo Tomas.

¹²⁵ Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, Observaciones finales sobre los informes periódicos séptimo y octavo combinados de México Adición, CEDAW/C/MEX/CO/7-8/Add.1, Dokumentua, 2015eko apirilaren 23a. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/R4vZuz>.

arduradunak ikertzeko eta zigortzeko. Gainera. Campo Algodoneroren epaia betetzeko, emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko politika publikoetarako bi koordinazio-hitzarmen sinatu zituen, baliabide federalak Chihuahuara transferitzen zituztenak.

5.2 Jurisprudentzian

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak aitortu zuen feminizidioa dela emakume baten genero-arrazoiengatik hilketa, eta Estatuak baimendutako indarkeria-patroi sistematiakoak sustatzera laguntzen duela ezarri zuen. Campo Algodonero kasuaren epaiak aurrekari bat ezartzen du nazioartean, Estatu bat kondenatzen baitu Belém do Paráko Konbentzioaren urraketengatik, zeinak, besteak beste, zehazten du Estatuak indarkeria ikertzeko betebeharra duela, eta ikertzeko eta zigortzeko behar bezalako arduraz jokatu behar duela. Ildo horretan, nahiko aurrerapauso handia eman zuen Gorteak berretsi baitzuen Belém do Pará Konbentzioa aplikatzeko zuen eskumena.

Bestalde, epaiak emakumearen aurkako indarkeria osatzen duten ezaugarriak zehazteko irizpide metodologikoak ezarri ditu. Izan ere, Gorteak genero-ikuspegiaren kontzeptuak eta metodologia finkatu ditu interpretazio judizialean (feminizidioa, estereotipoen eragina, egiturazko indarkeria, diskriminazioa, eta abar). Gorteak genero-ikuspegia hau Estatuak kalteak konpontzeko eta betebeharrak betetzeko egiten dituzten ekintzak aztertzeko ere erabiltzen du¹²⁶. Horrez gain, emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz Estatu bat erantzuleztat hartzeko aurrekari garrantzitsu bat ezarri du.

Campo Algodonero Kasuan ezarritako irizpideak, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak hurrengo kasu batzuetan aplikatu ditu, adibidez, 2014ko Veliz Franco¹²⁷ kasuan¹²⁸. Bertan, Guatemalako Estatuak María Isabel Veliz Franco adingabearen desagertzea eta ondorengo heriotza ikertzeko behar bezalako ardurarik ez izateagatik eta kasuaren jarraipena justifikaziorik gabe atzeratzeagatik aztertzen da. Gertakariak, gainera, genero-indarkeria eta zigorgabetasuneko egiturazko testuinguru batean garatzen

¹²⁶ Medina, Rosas. *Op.cit.* 5-6.

¹²⁷ Corte Interamericana de los Derechos Humanos, Caso Veliz Franco y otros vs. Guatemala, 2014ko maiatzaren 19a. 212. paragrafoa.

¹²⁸ Cardoso Onofre de Alencar, Emanuela (2015). "Mujeres y estereotipos de género en la jurisprudencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos." *EUNOMÍA. Revista en Cultura de la Legalidad*. 41.

dira. Testuinguru horretan, emakumearen aurkako diskriminazio handia dago, eta horrek ondorioak ditu prozesu penalean¹²⁹.

Bi kasu horietan (Campo Algodonero eta Veliz Franco), agintariek janzteko moduari, bizitza sozialari eta sexualari eta senitartekoen zaintza ezari egin zioten erreferentzia. Elementu horiek guztiek eragina izan zuten agintarien jokabide geldo eta arduragabeen. Izan ere, Gorteak onartu zuen estereotipoak erabiltzeak eragina izan zuela agintarien jarrera axolagabe, arduragabe eta diskriminatzailean, eta jarrera horiek emakumeen diskriminazio- eta mendekotasun-testuingurua gizartean txertatzeko joera eragiten zutela ezarri zuen¹³⁰. Arrazoibide horretan argi ikusten da Gorteak Campo Algodonero kasuan ezarritako genero-ikuspegia. Horrexegatik, esan dezakegu, epaiak ondorioak ere eragin dituela nazioarte mailan, aurrekari bezala aplikatzen baitu Gorteak epaitzen dituen hurrengo kasuetan.

Epai honen bidez, Gorteak emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza izateko duten eskubidea eta doktrina indartu egin ditu. Gainera, zenbait kontzeptu garatu egin ditu, eta egiturazko indarkeria ezartzeko metodologia nabarmena sortu du.

6. Amaierako hausnarketak

Campo Algodonero Kasua Sistema Interamerikarrera eramateak eragin nabarmena izan du. Mexikoko gobernuak eta administrazio desberdinek, Nazioarteko Eerakundeen zein mugimendu sozialen presio diplomatikoa eta mediatikoa jaso zituzten. Eragile horiek guztiek emakumeen giza eskubideen arloan eta justizia-administrazioan aldaketa sakonen beharra aldarrikatu zuten. Prozesu honen azken urratsa Campo Algodonero Kasuko epaia izan zen. Bertan, 2009an, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak Mexikoko administrazioaren irregulartasunak eta feminizidioen inguruan zegoen zigorgabetasuna agerian utzi zituen. Epaiak Estatuaren erantzukizuna ezarri zuen hiru gazteen desagertzeagatik eta hilketengatik, eta prozesu horrekin emakumeen eskubideen arloan garai berri bat zabaldu zen.

¹²⁹ Corte Interamericana de Derechos Humanos (2022). “Technical Data: González y otras (Campo Algodonero) Vs. México”. Eskuragarri hemen: https://www.corteidh.or.cr/cf/Jurisprudencia2/ficha_tecnica.cfm?nId_Ficha=347&lang=e (Kontsulta eguna: 23/03/2022).

¹³⁰ Cardoso Onofre de Alencar, Emanuela (2015). *Op. cit.*

Epaiaren ebazpenak lotesleak ziren eta, horren ondorioz, Mexikoko Estatuak epaiaren agindu gehienak betetzeaz gain, funtsezko aldaketak egiten hasi behar izan zun barne legedian, bere ordenamendu juridikoa nazioarteko irizpideekin bateratzeko. Horrela, erreforma garrantzitsuak ezarri ziren barne legedian, besteak beste, Alba Protokoloaren erreformak, *Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia* eta *Alerta de Violencia de Género*.

Neurri nabarmenatariko bat feminizidio tipo penalaren sorrera izan zen, Estatuetakoa Zigor Kodeetan zein Zigor Kode Federalean. Gainera, pausu hori Hego-Amerikan Mexiko arlo honetan aitzindari bihurtu zen: Estatu askok Mexikok zabalduzako bidea jarraitu zuten, feminizidioa tipifikatuz¹³¹. CEDAW-k berak zoriondu zuen Mexiko legedian egindako erreformengatik. Hauen artean emakumeak ez diskriminatzeko eta herrialdean emakumeen aukera-berdintasuna bermatzeko ahaleginak eta politika publikokoak azpimarratu zituen CEDAW-ren Komiteak.

Mexikoko barne legedian ez ezik, Nazioarte mailan ere eraginak izan zituen epaiak. Gorteak aurrekari garrantzitsu bat sortu zuen nazioarteko zuzenbidean. Alde batetik, Belém do Pará Konbentzioa aplikatzeko eskumena berretsi zuen Gorteak. Bestetik, Estatu bat kondenatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ez prebenitu, ez ikertu eta ez zigortzeagatik. Eta azkenik, genero-ikuspuntua aplikatzen duen metodologia ere erabili zuen, eta emakumeen kontrako indarkeriarekin lotura duten kontzeptuak argiti zituen.

Beraz, sarreran planteaturiko galderak erantzun ditugu. Gortearen epaiak, Nazioarteko eragileek egindako presioarekin batera (CEDAW-ren Txostenak, besteak beste), barne-legedian eta politika publikoetan aldaketa sakonak bultzatu ditu. Horrez gain, Sistema Interamerrikarrean epaia aurrekari garrantzitsua izan da genero ikuspuntua aplikatu duelako. Horrexegatik Nazioarteko Zuzenbide Publikoak, eta kasu honetan eskualdeko Gorteak, emakumeen giza eskubideak babesteko tresna aproposa eta beharrezkoa dela ondorioztatzen dugu. Estatu batek giza eskubideen betebeharrak eta eskubideak bermatu ezean, Nazioarteko eragileek presioa eragiteko tresnak dituztelako. Gainera, emakumeen giza eskubideen urraketan biktimek justizia aldarrikatzeko Estaturik gaituriko azken auzialdira errekurtsoa aurkez dezakete. Estatu objektibotasunez epaituko duen azken instantzia judiziala, bereziki zigorgabetasuna hedatu den lurraldeetan. Beraz,

¹³¹ Feminizidioa Zigor Kodeetan tipifikatu zuten honako Estatu hauek: Argentina (2012), Bolivia eta Honduras (2013), Ecuador (2014), Brasil eta Colombia (2015), Uruguay (2017) eta Perú (2018).

neurriak ezartzeko eta modu honetan generoko diskriminaziorik gabeko gizarte eta mundua sortzeko erabilgarria den nazioarteko tresna dugu.

Aurrerapausoak eman badira ere, errealitatea oraindik iluna da. Izan ere, datuek egungo Mexikoko emakumeek egoera larria pairatzen dutela islatzen dute argiro. Ikerketen arabera, Mexikon 2019 eta 2020 urteetan 1.896 feminizidio egon ziren (100.000 emakumeko 1,4 feminizidio)¹³², alegia, feminizio gehien duen bigarren herrialdea Hego-Amerikan¹³³. 2022ko lehen hiruhilekoan Guadalupe (Nuevo León), Ciudad Juárez (Chihuahua), Ecatepec de Morelos (Mexikoko Estatuak), Morelia (Michoacán) eta Salinas Victoria (Nuevo León) dira ustezko feminizidio gehien izan dituzten udalerriak¹³⁴.

Beraz, Mexikon esparru judizialean eta lege-eremuan aldaketak egon badira ere, patriarkatuaren kultura eta genero-estereotipoak oso errotuta daude gizartean. Izan ere, gizarte kontzientzian oraindik ez da eman benetako aldaketa. Aldaketa sozio-kulturalak juridikoak baino mantsoago bilakatzen du gizartea maiz askotan.

Izan ere, azken asteetan feminizidio kasu berri batek asaldatu du Mexikoko gizartea: Debanhi Kasua. Debanhi Escobarren gorpua Nueva Castilla Monterreyko kanpoaldean, moteleko zisterna batean, agertu zen, joan den apirilaren 21ean, hilaren 9an bere arrastoa galdu ondoren. 18 urteko neska gaztea herrialdeko iparraldeko emakumeen desagertzeen eta hilketen ikur bihurtu da. Bada, Debanhiren hilketa ez da kasu bakana. Datu ofizialen arabera, 327 emakume desagertu egin dira 2022an Nuevo León-en. Kasu horrek Estatuaren gabeziak eta geldotasuna emakumeen kontrako indarkerian agerian utzi du berri¹³⁵; izan ere, Ciudad Juárezeko feminizidioen antza handia du.

Arreta handiz aztertu behar dugu feminizidio kasu horren aurrean Mexikok zer egiten duen. Espero dugu oraingoan Estatuak ikerketak behar bezala egin ditzala, Nazioarteko eragileek emandako gomendioak betez; eta funtzionarioen artean jarduteko eran zabarkeria egon dela ondorioztatzen bada, erantzukizunak bere gain hartzea. Mexikok egoera ikertzeko eta egon daitezkeen kasu berriak prebenitzeko hartzen dituen

¹³² Observatorio de Igualdad de Género de América Latina y el Caribe (2022). "Feminicidio". Eskuragarri hemen: <https://oig.cepal.org/es/indicadores/feminicidio> (Kontsulta eguna 2022/05/01).

¹³³ Honduras Estatuak du feminizidio tasa altuena.

¹³⁴ CNN Español (2022). "Las cifras de feminicidio en México muestran el alcance de una violencia que no se detiene". Latam: México 2022ko apirilaren 27a. Eskuragarri hemen: <https://cnnespanol.cnn.com/2022/04/27/feminicidio-mexico-cifras-orix/> (Kontsulta eguna: 2022/05/01).

¹³⁵ González Díaz, Marcos (2022). "El caso de Debanhi Escobar es la punta del iceberg de lo que ocurre en Nuevo León": la alerta por el aumento de mujeres desaparecidas en el estado del norte de México". *BBC News*. 2022ko apirilaren 22a. Eskuragarri hemen: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-61223703> (Kontsulta eguna: 2022/05/08).

neurrii erreparatuko diegu. Espero dugu feminizioen errudunak aurkitzea, epaitzea eta zigortzea. Izan ere, ezinbestekoa da zigorgabetasunarekin amaitzea, inpunitatea feminizidioen eragile nagusietako bat baita.

Bibliografía

Artikuluak eta liburuak

- Abramovich, Victor (2010). "Responsabilidad estatal por violencia de género: comentarios sobre el caso "Campo Algodonero" en la Corte Interamericana de Derechos Humanos", *Anuario de Derechos Humanos*, 6, 167-168.
- Aguirre, Olivia, (2014). "Estado mexicano: lejos de cumplir íntegramente la sentencia de la CIDH en el caso González y otras (Campo Algodonero)", *Via Iuris*, 17, 169-182. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6610283>.
- Aguirre, Olivia. (2021). "El feminicidio en Ciudad Juárez: una perspectiva jurídica". *Vía Iuris*, 30. 192-224. Eskuragarri hemen: <https://doi.org/10.37511/viaiuris.n30a6>.
- Aziz, Aberto (2012). "Violencia y destrucción en una periferia urbana El caso de Ciudad Juárez, México", *Gestión y política pública*, 21, 227-268
- Ballesteros, Vanessa (2013). *La atribución al Estado del comportamiento de los particulares en el ámbito de la responsabilidad internacional*. España: Universidad de Castilla- La Mancha.
- Boira Santigao, Marcuello-Servós Chaime, Otero Laura, Sanz Barbero Belén eta Vives-Cases Carmen (2015). "Feminicidio y feminicidio: Un análisis de las aportaciones en clave iberoamericana". *Revista Internacional de Trabajo Social y Ciencias Sociales*, 10. 27-46.
- Cardoso Onofre de Alencar, Emanuela (2015): "Mujeres y estereotipos de género en la jurisprudencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos." *EUNOMÍA. Revista en Cultura de la Legalidad*. 9, 26-28.
- Christiansen, María (2014). "La violencia de la "Antiviolenca": una crítica a la legislación mexicana contra la violencia de género", *Psicología desde el Caribe: revista del Programa de Psicología de la Universidad del Norte*, 3, 495-530.
- Cramaussel, Chantal (2012). "Cuando Ciudad Juárez se llamaba Paso del Norte violencia, frontera y mujeres", Salvador Bernabéu eta Carmen Mena (konp.), *El feminicidio de Ciudad Juárez. Repercusiones legales y culturales de la impunidad*. Sevilla: Universidad Internacional de Andalucía. 21-24.
- Elgul, Noemi (2014). "Una visión trialista del fallo de la CIDH sobre violencia de género Análisis del fallo "CIDH. Caso: "González y otras ("campo algodouero") vs. México. Sentencia de 16 de noviembre de 2009, en base a la teoría, el mundo jurídico y sus horizontes, de Werner Goldschmidt", *Enfoques: revista de la Universidad Adventista del Plata*, 26, 129-145.
- Emakunde (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa eta gomendioak*, Gasteiz: Emakunde. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/c4tj8T>.
- Gaona, Martha, Durán, Roberto eta Espino, Iván (2019). "México, País Feminicida", *Revista Electrónica de Estudios Penales y de la Seguridad: REEPS*, 5, 15-39. Eskuragarri hemen: <https://www.ejc-reeps.com/ZAPATA.pdf>.
- Garza, Minerva (2013). *La violencia en contra de las mujeres: una violación del derecho a la igualdad y al principio universal de no discriminación: especial referencia a México*. España: UNED. Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Ginés, Emilio (2012). "Derechos humanos, mujer y frontera: el feminicidio de Ciudad Juárez ante la Corte Interamericana de Derechos Humanos", Salvador Bernabéu eta Carmen Mena (konp.), *El feminicidio de Ciudad Juárez. Repercusiones*

- legales y culturales de la impunidad*. Sevilla: Universidad Internacional de Andalucía. 125-157.
- González, Lydia (2020). *Los derechos Humanos de las mujeres y el movimiento feminista transnacional: La CEDAW, sus procedimientos e impactos glociales*. España: Universitat de València.
- Iribarne, Macarena (2015). “Feminicidio en México”, *Eunomía: Revista en Cultura de la Legalidad*, 9, 205-233.
- Jiménez, Francisco (2011). “La responsabilidad directa por omisión del Estado más allá de la diligencia debida. Reflexiones a raíz de los crímenes ‘feminicidas’ de Ciudad Juárez”, *Revista Española de Derecho Internacional*, 63, 11-50.
- Juárez, Javier (2015). *Estrategias y campañas de desinformación gubernamental y manipulación informativa en relación a los feminicidios y secuestros de mujeres y niñas en Ciudad Juárez entre 1993 y 2013*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid. Eskuragarri hemen: <https://eprints.ucm.es/id/eprint/33366/1/T36463.pdf>.
- Juárez, Javier (2017) “Comunicación, ética y feminicidio”, *Cuadernos Intercambio sobre Centroamérica y el Caribe*, 14, 19-30.
- Medina, Rosas (2010). *Campo Algodonero. Análisis y propuestas para el seguimiento de la sentencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos en contra del Estado mexicano*. Distrito Federal, México: Red Mesa de Mujeres de Ciudad Juárez A. C. eta CLADEM.
- Montero, Carmen (2019). “A comparative study between the Spanish and Mexican laws regarding femicide”, *Boletín Mexicano de Derecho Comparado*, 154, 147-170.
- Nogueira, Humberto (2017). “El control de convencionalidad por los Estados parte de la Convención Americana sobre Derechos Humanos y tribunales chilenos”, *Revista de Derecho: Publicación de la Facultad de Derecho de la Universidad Católica de Uruguay*, 15, 143-200.
- Palacios, Yannesit (2011). “Género en el Derecho Constitucional Transnacional: Casos en la Corte Interamericana de Derechos Humanos en conmemoración de los 100 años del Día Internacional de los Derechos Humanos de las Mujeres”, *Revista Facultad de Derecho y Ciencias Políticas*. 114, 131-165.
- Rábago, Elisabeth eta Camarillo, Laura (2018). “El papel de la Corte Interamericana de Derechos Humanos como intérprete de la Convención Americana sobre Derechos Humanos”. *Parlamento y Constitución. Anuario*, 19.
- Ushakova, Tatsiana (2013). “La protección contra la violencia de Género en el Sistema Interamericano de derechos humanos”, *Dereito: Revista xuridica da Universidade de Santiago de Compostela*, 1, 532-863. Eskuragarri hemen: <https://revistas.usc.gal/index.php/dereito/article/view/1144>.
- Vargas, Flor Carina eta Araiza, Alejandra (2021). “Acción política frente a la violencia feminicida en México. Experiencias de una Investigación Activista Feminista”, *Empiria*, 50, 91-114.
- Villarreal, Sara (2019). *Violencia de género en América Latina: La consolidación del feminicidio en Colombia*, Chile: Universidad Santo Tomas.
- Volgelfanger, Alan (2016). “El deber de prevención en casos de violencia de género: desde Campo Algodonero hasta Veliz Franco”, *Eunomía: Revista en Cultura de la Legalidad*, 9, 49-66.

Nazioarteko legeria eta nazioarteko organoen dokumentuak

Konbentzioak eta Tratatuak

Convención de Viena sobre Derecho de los Tratados 1969ko urtarrilaren 23a.

Convención Americana sobre Derechos Humanos, 1969ko azaroaren 22a.

Declaración Americana de los Derechos y Deberes del Hombre, Novena Conferencia Internacional Americana Bogotá, Colombia, 1948.

Convención Interamericana para Prevenir, Sancionar y Erradicar la Violencia contra la Mujer, 1994ko ekainaren 9a.

CEDAWaren inguruko dokumentuak

Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, *Recomendación General nº 19, La violencia contra la mujer*, 11º período de sesiones, 1992.

Eskuragarri hemen:

<https://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/recommendations/recomm-sp.htm#recom18>.

Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, *Informe de México producido por el Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer bajo el Artículo 8 del Protocolo Facultativo de la Convención y respuesta del Gobierno de México*, CEDAW/C/2005/OP.8/MEXICO, Dokumentua, 2005ko urtarrilaren 27a. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/gKP2xS>.

Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, *Informe de México producido por el Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer bajo el Artículo 8 del Protocolo Facultativo de la Convención y respuesta del Gobierno de México*, CEDAW/C/MEX/9, Dokumentua, 2015eko urtarrilaren 25a. Eskuragarri hemen: <https://onx.la/c981e>.

Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, *Observaciones finales sobre los informes periódicos séptimo y octavo combinados de México Adición*, CEDAW/C/MEX/CO/7-8/Add.1, Dokumentua, 2015eko apirilaren 23a. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/R4vZuz>.

Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, *Informe de México producido por el Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, Observaciones finales sobre el noveno informe periódico de México*, CEDAW/C/MEX/CO/9 Dokumentua 2018ko uztailaren 25a. Eskuragarri hemen: <https://acortar.link/DmRm92>.

Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer, *Examen de los informes presentados por los Estados partes en virtud del artículo 18 de la Convención Noveno informe periódico que los Estados partes debían presentar en 2016*, CEDAW/C/MEX/9, Dokumentua 2017ko otsailaren 2a. Eskuragarri hemen: [https://documents-dds-](https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N17/029/62/PDF/N1702962.pdf?OpenElement)

[ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N17/029/62/PDF/N1702962.pdf?OpenElement](https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N17/029/62/PDF/N1702962.pdf?OpenElement)
Protocolo Facultativo de la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer, 1999ko urriaren 6a.

Sistema Interamerikarreko epaiak edo txostenak

Comisión Interamericana de Derechos Humanos, Informe No. 28/07, Caso Campo Algodonero, 127º Período Ordinario de Sesiones. Dokumentua 2007ko martxoaren 9a.

- Corte Interamericana de los Derechos Humanos, Caso Velásquez Rodríguez, Sentencia de Fondo, 1988ko uztailearen 29a.
- Corte Interamericana de los Derechos Humanos, González y otras vs. México (Caso Campo Algodonero), 2009ko azaroaren 16a.
- Resolución de la Corte Interamericana de los derechos humanos del caso González y otras (Campo Algodonero) vs. México supervisión del cumplimiento de la sentencia. Dokumentua, 2013ko maiatzaren 21a.
- Corte Interamericana de los Derechos Humanos, Caso Veliz Franco y otros vs. Guatemala, 2014ko maiatzaren 19a.
- Corte Interamericana de Derechos Humanos (2022). “Technical Data: González y otras (Campo Algodonero) vs. México”. Eskuragarri hemen: https://www.corteidh.or.cr/cf/Jurisprudencia2/ficha_tecnica.cfm?nId_Ficha=347&lang=e (Kontsulta eguna: 2022/03/23).
- Organización de Estados Americanos (2022). “Comisión Interamericana de Derechos Humanos, Informes de Fondo”, *OEA Más derechos para más gente*. Eskuragarri hemen: <https://www.oas.org/es/cidh/decisiones/fondos.asp> (Kontsulta-eguna: 2022/03/24).

Beste Nazioarteko dokumentuak

- Bachelet, Michelle (2013). ONU Mujeres organismoaren Zuzendaria, hitzaldia, genero-arrazoiengatik emakumeen hilketei buruz, feminizidioak barne, 57a sesión de la Comisión sobre la Condición Jurídica y Social de la Mujer (CSW57), 2013ko martxoaren 8a. Eskuragarri hemen: <https://www.unwomen.org/es/news/stories/2013/3/bolstering-efforts-to-end-impunity-for-femicide-and-gender-motivated-killings> (Kontsulta eguna: 2022/05/01).
- Consejo de Derechos Humanos de la ONU, Informe de la Relatora Especial sobre la violencia contra la mujer, sus causas y sus consecuencias, Rashida Manjoo. A/HRC/20/16/Add.3 Dokumentua 2012ko maiatzaren 14a. Eskuragarri hemen: <https://www.refworld.org/es/docid/500810b72.html>.
- Nazio Batuetako Erakundea. Emakumeak, Trebakuntza-Zentroa (2011-2017). *Gender Mainstreaming. Concepts and definitions*. Genero-Estereotipoak. Eskuragarri hemen: <https://trainingcentre.unwomen.org/mod/glossary/showentry.php?eid=201> (Kontsulta eguna: 2022/04/28).
- Observatorio de Igualdad de Género de América Latina y el Caribe (2022). “Feminicidio”. Eskuragarri hemen: <https://oig.cepal.org/es/indicadores/feminicidio> (Kontsulta eguna 2022/05/01).

Mexikoko barne-legedia

- Código Penal de Estado de Guanajuato, 2001eko otsailaren 2a. Eskuragarri hemen: <https://idea.guanajuato.gob.mx/wp-content/uploads/2021/03/C%C3%B3digo-Penal-del-Estado-de-Guanajuato.pdf>.
- Código Penal de Estado de Chihuahua, 2006ko abenduaren 27a. Eskuragarri hemen: <http://www.congresochihuahua2.gob.mx/biblioteca/codigos/archivosCodigos/64.pdf>.
- Código Penal Federal de México, 1931ko abuztuaren 14a.

- Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia 2007ko otsailaren 1a. Eskuragarri hemen: https://www.gob.mx/cms/uploads/attachment/file/209278/Ley_General_de_Acceso_de_las_Mujeres_a_una_Vida_Libre_de_Violencia.pdf.
- Ley de Planeación, 1983ko urtarrilaren 23a. Eskuragarri hemen: https://www.diputados.gob.mx/LeyesBiblio/pdf/59_160218.pdf.
- Protocolo de Atención, Reacción y Coordinación entre Autoridades Federales, Estatales y Municipales en caso de Extravío de Mujeres y Niñas para Ciudad Juárez (Protocolo Alba). Eskuragarri hemen: <https://www.gob.mx/conavim/documentos/protocolo-de-atencion-reaccion-y-coordinacion-entre-autoridades-federales-estatales-y-municipales-en-caso-de-extravio-de-mujeres-y-ninas-para-ciudad-juarez-protocolo-alba> (Kontsulta eguna: 2022/05/08).

Bestelako iturriak

- CNN Español (2022). “Las cifras de feminicidio en México muestran el alcance de una violencia que no se detiene”. Latam: México 2022ko apirilaren 27a. Eskuragarri hemen: <https://cnnespanol.cnn.com/2022/04/27/feminicidio-mexico-cifras-orix/> (Kontsulta eguna: 2022/05/01).
- González Díaz, Marcos (2022). “El caso de Debanhi Escobar es la punta del iceberg de lo que ocurre en Nuevo León”: la alerta por el aumento de mujeres desaparecidas en el estado del norte de México”. *BBC News*. Apirilaren 22a. Eskuragarri hemen: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-61223703> (Kontsulta eguna: 2022/05/08).
- 20minutos (2011).” Inauguran un memorial para las víctimas de Juárez sin el apoyo de sus familiares”. *20minutos*. Azaroaren 8a. Eskuragarri hemen: <https://www.20minutos.es/noticia/1212600/0/mexico-memorial/ciudad-juarez/victimas/> (Kontsulta eguna: 2022/05/02).